



# eraberean

**TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA  
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA**

**RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO  
Y NO DISCRIMINACIÓN**

Eraberean sarearen jarduna 2018an

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGUKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES





# eraberean

**TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA  
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA**

**RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO  
Y NO DISCRIMINACIÓN**

## Eraberean sarearen jarduna 2018an

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGUKO ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

**Argitaraldia:**

1.a, 2019ko maiatza

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Enplegu eta Gizarte Politiketako saila

**Internet:**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

**Diseinua eta maketazioa:**

Kabinetearen eta Komunikazioaren Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako saila

# aurkibidea



## ERABEREAN SAREAREN JARDUNA 2018an

**Eraberean: Tratu-berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Sarea      7**

**Eraberean Sarearen jarduna 2018an      10**

BARNEKO LANA      10

KANPOKO LANA      18

• **1. lan-ardatza: Prebentzioa, Prestakuntza eta Sentsibilizazioa      18**

Sareari buruzko informazioa emateko eta Sarea ezagutarazteko jarduerak      18

Prestakuntza-jarduerak      28

Sentsibilizazio-jarduerak      35

Jarduera osagarriak      44

Tratu-berdintasunari eta Diskriminazio ezari buruzko I. Euskal Kongresua      48

• **2. lan-ardatza: Arreta, Aholkularitza eta Laguntza      59**

Sareak 2018an artatutako kasuen inguruko datuak      60



# **ERABEREAN SAREAREN JARDUNA 2018AN**



## ERABEREAN: TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA

Eraberean Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren bitartez bultzatzen duen sare bat da, 2014. urtearen amaiera aldera sortua, eta helburu dauka arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazioak edo -identitateak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioari aurre egitea.

Hasieratik, garrantzia eman zitzaion sareko lan hau migrazioen, ijito herriaren sustapenaren eta LGTBI kolektiboen esparruan ibilbide zabala zeukaten erakunde sozialek batera egiteari. Horrez gain, pentsatu zen garrantzitsua zela erakunde horiek erreferenteak izatea diskriminazio-kasu baten berri ematera jo zezaketen pertsona edo kolektiboentzat. Hala, erakundeok arrazak, etniak edo sexuak eragindako eskubide-urraketak detektatzeko “antena” gisa jokatuko lukete, eta tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa hedatzen lagunduko lukete informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzen bitartez.

Aurrerantzean, erakunde horiei antenak deituko diegu modu kolokialean, eta aipatutako hiru kolektiboek –migratzaileak, ijitoak eta LGTBI–, berriz, begiradak. Terminologia hori Sarean erabiltzen da eta erabili ahala finkatuz joan da, eta txosten honetan horixe erabiltzea da gure asmoa.

Guztiok ados jarri ginen lan-sare autonomiko bat eratu behar zela, esku hartzeko eredu partekatu bat izango zuena, eta, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez ezik (lehen aipatutako zuzendaritzaren bidez parte hartzen du),



gizarte-erakunde ugari bat egiteko konpromisoa hartu zuten (hasieran 12 eta gaur egun 11).

Antena hauek esku hartzen dute Eraberean Sarean: Aldarte, CEAR Euskadi, Cruz Roja; Gao Lacho Drom, Bizkaiko CITE-CCOO, Errespetuz, Kale Dor Kayiko, Nevipen, Agifugi, Gehitu eta Gipuzkoako SOS Arrazakeria.

Erakunde horiek, zuzendaritzako, Biltzen eta Berdindu zerbitzuetako eta Ijito Herriaren Euskadiko Kontseiluko Idazkaritza Teknikoko langileekin batera, Eraberean Sareaosatzen dute, zeinak oinarritzko helburu hauek baititu:

- Tratu-berdintasunaren aldeko eta arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazioak edo -identitateak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioaren aurkako politikak sustatzea.
- Herritarrei beharrezko tresnak ematea (informazioa, aholkularitza, orientazioa) diskriminaziozko tratu baten ondorioz eskubideak urratzen bazaizkie beren eskubideak balia ditzaten.
- Sareaosatzen duten erakunde edo antenek aztertutako kasuak biltzea eta urtero txosten batean aurkeztea.

Honako hauek dira Sarearen barruko funtzionamendu-egitura nagusiak:

- Talde eragilea: Zuzendaritzako, Biltzeneko, Berdinduko eta Ijito Herriaren Euskadiko Kontseiluko Idazkaritza Teknikoko kideekosatzen dute. Helburu du Sarea politikoki sustatzea, baliabideak bilatzea eta sarearen gaineko jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Idazkaritza Teknikoa: Sarearen funtzionamendua koordinatzen eta bideratzen du. Zuzendaritzak Biltzenen esku uzten du lan hori.
- Osoko bilkura: Gune honetan elkartzen dira Sareaosatzen duten eragile guztiak. Aldian-aldean biltzen dira, antenek egin dituzten edo egin asmo dituzten jarduerak,

esku artean dituzten kasuak eta Sarearen funtzionamendurako garrantzitsutzat jotzen den beste edozein gai sarean partekatzeko.

- Batzordeak: Lantalde espezializatuak dira, eta hala antena bakoitzean parte hartzen dutenek nola *talde eragileko eta Idazkaritza Teknikoko kideek osatzen dute. Hasieran, honako batzorde hauek sortu ziren:*
  - Informazioa eta Dokumentazioa
  - Prestakuntza eta Sentsibilizazioa
  - Diskriminazioaren Biktimentzako Arreta, Aholkularitza eta Laguntza.

Hiru batzorde horiez gain, 2017an beste lantalde bat eratu zen Sarearen barneko eta kanpoko komunikazioarekin lotuta sortu diren gai oso zehatzei unean-unean erantzuteko xedez, baina formalki ez da eratu lan-batzorde egonkor gisa.



## ERABEREAN SAREAREN JARDUNA 2018AN

Txosten honen helburu nagusia Eraberean Sareak 2018an eginiko lanen alderdi esanguratsuenak jasotzea da.

Aurreko urteetan bezala, lan hori bi mailatan egin da: barrura begira eta kanpora begira.

### Barneko lana

#### **Sarea antolatzea, bateratzea, sendotzea eta garatzea**

Sareak funtzionatzea, koordinatzea eta dinamizatzea ahalbidetzen duen ohiko dinamikan datza. Horretarako, Sarearen koordinazio-egiturek bilerak egiten dituzte:

1. Talde eragilea: Sarea bultzatzeko zereginak egiteko eta Sarearen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, talde eragilea sistematikoki biltzen da osoko bilkura bakoitza baino lehen, bai eta beharrezkotzat jotzen den guztietan ere: 2018an, talde eragilea 10 aldiz bildu da.
2. Osoko bilkurak: Eraberean Sareak 10 osoko bilkura egin ditu 2018an, eta horietan parte hartu dute Sareaosatzen duten erakundeen ordezkariak eta talde eragileko kideak.
3. Batzordeak: lan-eremu espezializatu gisa, hiru batzordeak (Informazioa eta Dokumentazioa; Prestakuntza eta Sentsibilizazioa; Diskriminazioaren Biktimentzako Arreta, Aholkularitza eta Laguntza) hainbat bilera egin dituzte 2018an. Bilera horietako gehienak osoko bilkuren barruan egin dira.

Bestalde, formalki eratutako komunikazio-batzorderik ez dagoenez, lantalde espezifiko bat bildu izan da Sarearen komunikazioaren eta kanpo-proiektzioaren gainean hitz egiteko. 2018an, komunikazio-talde hori hiru aldiz bildu da, "Egin bat diskriminazio-

rik gabeko alokairuekin” sentsibilizazio-kanpainaren difusioarekin eta Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik ezari buruzko I. Euskal Kongresuarekin lotutako alderdiak zehazteko asmoz (Sarearen 2018ko lanari buruzko kapitulu honetan luze eta zabal emango da horien berri).

Sarearen barneko jarduerari dagokionez, **Araudiarekin** lotutakoa ere aipatu behar dugu:

Sarearen 2017ko txostenak jakitera eman zuen Eraberean Sarearen barne-funtzionamenduaren **Araudia** prestatu zela eta ondoren 2018ko irailaren 18ko osoko bilkuran onartu zela.

Araudi horrek, beste oinarritzko arau batzuen artean, Sarearen definizioa eta jarduteko eremua, Sarearen jarduerak, antolakuntza, egitura eta funtzionamendua eta beste hainbat alderdi jasotzen ditu.

Pentsatu zen araudia beharrezkoa zela Sare osoaren funtzionamendua sistematizatzeko, kideen ekarpenak zehazteko eta Sarearen jarduera osoa partekatutako eta adostutako helburuetara bideratzeko.

Araudiaren 14.2 artikulua araberak, araudia osoko bilkuran onartu eta lehenengo bi urteetan, haren funtzionamendua aztertuko da martxan jarri zenetik hasi eta sei hilabete behin, eta Koordinazio Nagusiak osoko bilkuran bultzatuko du berrikuspen hori, dagokion gai-zerrendan sartuta.

Hain zuzen ere, artikulua hori betez, 2018an bi aldiz berrikusi da araudia; bi kasuetan, Sareko parte-hartzaile guztiek, hala antenetakoek nola talde eragilekoek, ekarpenak egin dituzte partaidetza-prozesu baten bidez. Bi berrikuspenen ostean, araudia berretsita gelditu da lehenik martxoaren 19ko osoko bilkuran eta bigarrenik irailaren 17koan.

Bestalde, 2018an barne mailan izan diren nobedadeetako bat araudiak ematen duen aukera baten ondorioz etorri zen. Hain zuzen, gogoan izan behar dugu araudiaren 6.1 artikuluan **“Eraberean Sarearen entitate laguntzaileak”** egotea aurreikusten dela. Entitate horiek, antena izateko baldintzak beteta ere, antena-saretik kanpo geldituko

lirateke hainbat arrazoi direla eta: lurralde-estaldura, sistemaren bidezko dimentsio-namendua, aurrekontuaren erabilgarritasuna...

Horri dagokionez, iragarri behar dugu aldez aurretik eskaera egin ondoren bi elkarte sartu direla Sarean erakunde laguntzaile gisa: alde batetik, **Bizigay**, sexu-aniztasun eta -askapenerako elkarte (esparrua: LGTBI), eta, bestetik, **Amuge**, Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarte (esparrua: ijito herria). Biek ala biek Bilbon dute egoitza.

Aurtengo jarduera nabarmenen artean, lankidetza-hitzarmen bat formalizatu da Euskal Herriko Unibertsitateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoarekin.

**Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoaren arteko lankidetza-hitzarmena.**

Klinika Juridikoa ikaskuntzarako espazio bat da, eta, aldi berean, Zuzenbideko eta kriminologia-ikasketetako sistema pedagogikoa eraldatzekoa. Gainera, diskriminazioaren aurkako estrategia juridikoak hausnartzeko eta identifikatzeko laborategia ere bada. Estrategia horien bitartez, ikasleek gizarte bidezkoago bat eskuratzeko zeregin garrantzitsua dutela jakin dezakete. Klinika Juridikoak diskriminazioaren aurkako estrategiak diseinatzeko eta eta giza eskubideak defendatzeko helburu berberak dituzten gizarte-talde, -elkarte eta -erakundeekin lan egiten du.

Eraberean Sarearen jardunari buruzko 2017ko txostenean adierazi zen moduan, Sareari lotutako zenbait profesional aurretik ere aritu ziren Euskal Herriko Unibertsitateko Klinika Juridikoarekin elkarlanean, klinikak antolaturiko prestakuntza-saioetan parte hartuta.

Elkarlan hori aldizkakoa zen hasieran, eta gerora, horren harira, Sarearen eta unibertsitate-erakundearen arteko lankidetza formalizatu egin da. Bi erakundeek helburu komunak dituztenez diskriminazioaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borrokan, aniztasuna eta tolerantzia sustatzean eta justizia soziala lortzearen arloan, pentsatu zen emankorra izan litekeela bi erakundeen arteko lankidetza-hitzarmen bat formalizatzea, ezagutza eta esperientziak trukatzeko, elkar aberaste aldera.

Horrela, 2017an ezarri ziren oinarriak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko JSKJ Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoaren arteko lankidetzaren hitzarmena egiteko. Azkenik, Gobernu Kontseiluak hitzarmena onartu zuen 2018ko apirilaren 17an.

Gero, 2018ko maiatzaren 14an, Donostiako Zuzenbide Fakultatean, hitzarmena sinatu zuten Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak eta Maggy Barrère Euskal Herriko Unibertsitateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoko zuzendariak.

Hitzarmen horren bitartez, Eraberean Sarea osatzen duten erakundeek diskriminazio-kasuen arretan duten ikuspegia eta esperientzia eskainiko du Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, eta Klinika Juridikoak Eraberean Sareari ezagutza tekniko juridikoa emango dio JSKJko adituen eskutik, eta arlo horretako doktrinarako eta jurisprudentziarako sarbidea ere emango dio.

Hori guztia gauzatu ahal izateko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ahalegina egingo du Eraberean Sareko kideek Klinika Juridikoak antolatzen dituen mintegietan parte har dezaten, eta Eraberean Sarearen erakundeek landutako kasu errealei buruzko informazioa emango dio klinikari.

Klinika Juridikoak, berriz, kasu horiek aztertuko ditu eta Sareari itzuliko dizkio tratamendu espezializatu bat eman ondoren. Gainera, laguntza emango du Eraberean Sarearentzat interes estrategikoa duten beste eduki batzuk jorratzeko.

Hitzarmen horren sinadurak oihartzun handia izan zuen prentsan.

Hona hemen Eusko Jaurlaritzaren **irekia** komunikazio-kanalean hitzarmenari buruz argitaratutako berriak:



**2018.eko apirilak 17**

Eusko Jaurlaritzak, Eraberean Sarearen bidez, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoak lankidetza hitzarmena sinatuko dute, gizarte diskriminazioaren eta bazterketaren aurka borrokatzeko, aniztasuna eta tolerantzia sustatzeko eta gizarte justizia lortzeko (Gobernu Bilera 2018-04-17)

Eusko Jaurlaritzak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez sustatzen duen Eraberean Sareak –bertan daude immigrazioaren eremuan eta ijitoen eta LGBTI kolektiboaren sustapenean modu esanguratsuan lanean ari diren zenbait gizarte-erakunde– lankidetza-hitzarmena sinatuko du Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoarekin.

Hitzarmenaren helburua da funtsean baterako lan-dinamikak garatu ahal izateko espazioa eratzeko harremana formalizatzea, ulertzen baita gizarte-diskriminazioaren eta -bazterketaren aurka borrokatzeko, aniztasuna eta tolerantzia sustatzeko eta gizarte-justizia lortzeko ezagutza teoriko eta praktikoen elkarrekiko fluxuaren bidez, sinergia bat sortu ahalko dela eta, azken beltzean, horren bitartez helburuak lortu ahalko direla, baterako ikuspegiaz edo ikuspegi partekatuaz.

2018.eko maiatzak 14

Artolazabal: "Eraberean Sareak eta EHUKo Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoak lankidetzan jardungo dute diskriminazioaren eta bazterketaren aurkako burrukan"



Donostia, 2018/05/14

Eusko Jaurlaritzak Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez sustatzen duen **Eraberean Sareak** –bertan daude immigrazioaren eremuan eta ijitoen eta LGTBI kolektiboaren sustapenean modu esanguratsuan lanean ari diren zenbait gizarte-erakunde– eta Euskal Herriko Unibertsitateko **Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoak** lankidetzan hitzarmena sinatu dute eta, horren bidez, ezagutzak eta esperientziak trukatu ahalko dituzte eta baterako estrategiak eta interesak garatu.

Akordio horren bidez, harremana formalizatzen da bi erakundeen artean; biek partekatzen dituzte **gizarte-diskriminazioaren eta -bazterketaren aurkako** borrokan baterako interesak, aniztasunaren eta tolerantziaren sustapena eta gizarte-justizia lortzea. Ekimen horren bidez, baterako lan-dinamikak garatu ahalko dira; izan ere, ezagutza teoriko eta praktikoen elkarrekiko fluxuak aukera emango du helburuak lortzeko baterako ikuspegi partekatuaren bidez.

**Beatriz Artolazabal** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak nabarmendu du **“tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza** gizarte moderno orok bete beharreko **helburu** direla. Akordio honen bidez, urratsak eman ahalko ditugu norabide horretan”.

Bestalde, **Maggy Barrère** Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoko zuzendariak zera esan du: “hitzarmen honen bidez, urrats oso garrantzitsua emango da unibertsitatea gizarteari zabaltzeko, eta politika publikoak zuzentzen dituenaren, unibertsitatearen eta elkarte-egituraren arteko lankidetzaren espirituaren balioa nabarmenduko da, **gizarte-diskriminazioko eta -bidegabekeriako arazoei eraginkortasunez heltzeko** bide bakar gisa”.

**Eraberean Sareak** Euskadiko politika publikoetan eta sozietate zibilean tratu-berdintasuneko eta bazterketarik ezeko printzipioa sustatzen du eta, horretarako, erakunde- eta gizarte-mailan diskurtso eta praktika inklusiboak sustatzea eta hura eraginkor izateko **eragile eta baliabideak aktibatzen ditu**.

Hori horrela, honako hauek ditu helburu: tratu-berdintasuneko eta bazterketarik ezeko politika bereziak **sustatu eta orientatzea**; tratu-berdintasuneko eta bazterketarik ezeko printzipioa politika sektorialetan integratzea; eta, azkenik, pertsonen zerbitzura jartzea informazioko, aholkularitzako eta orientazioko mekanismo eta tresnak, diskriminazio-tratu baten aurrean beren eskubideak balia ditzaten.

UPV/EHUren **Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa** Zuzenbidearen eta ikasketa kriminologikoen ikaskuntza-espazio eta, aldi berean, sistema pedagogikoaren eraldaketa-espazio gisa eratuta dago, bai eta diskriminazioaren aurkako estrategia juridikoen gainean hausnartzeko eta horiek identifikatzeko laborategi gisa ere; estrategia horien bidez, gizarte bidezkoagoa izateko duen eginkizun garrantzitsuaz jabetuko dira.

Gizarte-diskriminazioaren eta -bazterketaren aurkako borroka eta **aniztasunaren eta tolerantziaren sustapena** ditu funtsezko oinarri.

Honako hauek ditu **helburu**, besteak beste: Zuzenbide Fakultateko ikasleak botere-sistema isolatuek (sexua-generoa, klasea, arraza/etnia, desgaitasuna, nazionalitatea, sexu-orientazioa eta -identitatea etab.) edo horien elkarguneek eragindako injustizia-egoera larriak bizi dituzten pertsona eta taldeen kasuekin harremanetan jartzea; kasuak aztertzeke eta juridikoki bideratzeko tresnak sortzea (zuzenbideen ingeniartza eta proposamen kriminologikoak) eta, horretarako, ikasketetan ikasitakoak eta gizarte-aktibismoan inplikaturik dauden elkarte eta erakundeen esperientzia lotzea; irakaskuntza juridiko eta kriminologikoetan erreformak planteatzea eta, horien bidez, zeharka, botere-sistemei buruzko hausnarketa egin ahal izatea; botere publikoek gizarte-justiziako politiketan egiten duten lanean laguntzea eta, horretarako, esku hartzeke edo hobetzeko arlo posibleak iradokitzea.

### **Idatzizko komunikabideetako berri gehiago:**

- La red Eraberean y la facultad de Derecho unen fuerzas contra la exclusión social  
**El Diario Vasco**, 2018/05/15, 7. or.
- El Gobierno Vasco y la UPV colaborarán en la lucha contra la discriminación.  
**EFE FLASH Noticias**. Gasteiz, maiatzak 14 (EFE)



## Kanpoko lana

### Gizarte-proiektzioa eta pertsona eta kolektiboenganako arreta

Jarduera hau bi lan-ardatzen inguruan egiten da: lehenengo ardatzean, **informazioaren, dokumentazioaren, prebentzioaren, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren** arloan tratu-berdintasunaren printzipioarekin lotuta egiten diren ekintza guztiak biltzen dira; bigarren ardatzean, berriz, erdigunean jartzen dira jatorriak, etnia, nazionalitateak edota sexu- eta genero-orientazio edo -identitateak eragindako diskriminaziozko tratu edo gertakari baten edo gorroto-delitu baten biktima edo lekuko direla-eta antenen bitartez Sarearekin harremanetan jartzen diren pertsonak, eta **arreta, aholkularitza eta laguntza** ematen zaie.

### 1. lan-ardatza:

#### Prebentzioa, Prestakuntza eta Sentsibilizazioa

Ardatz honek erreferentzia egiten die Sarearen informazio-, dokumentazio- eta hedapen-jarduera guztiei, baita instituzioei, gizarte-erakundeei eta gizarte zibilar preskakuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza emateko jarduerari ere.

Bi batzordek garatzen dute lan-ardatz hau: **Informazio eta Dokumentazio Batzordeak eta Sentsibilizazio eta Prestakuntza Batzordeak**. Hala ere, batzorde horietako bakoitzaren lan-eremua ez da itxia, eta zenbaitetan elkartzen dira proiektu edo jarduera batzuk batera egiteko.

Edonola ere, aipatzekoa da ardatz honen inguruan egiten diren jarduera guztiak ez dituztela batzorde horiek gauzatzen.

#### Sareari buruzko informazioa emateko eta Sarea ezagutarazteko jarduerak:

Sareari buruzko informazioa emateari eta Sarea ezagutarazteari dagokionez, irismen desberdineko jarduketak egin dira, hainbat mailatan:

## Sarearen jarduerari buruzko 2017ko txostena

Zalantzarik gabe, txostena egitea eta zabaltzea lan handia izan da. Horretarako, batzorde espezifiko bat sortu da, non Sareko hainbat kide profesionalek parte hartu duten.

Txostenean jasota daude Eraberean Sareak bere hirugarren urtean gauzatu dituen jarduera guztiak, eta helburu nagusi gisa du ikusgai jartzea Sareak eta hori osatzen duten elkarteek 2017an eginiko lana.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburu Lide Amilibiak aurkeztu zuen Sarearen jarduerari buruzko 2017ko txostena, 2018ko ekainaren 27ko prentsaurrekoan.

Aurkezpenean izan ziren, halaber, Eraberean Sarea osatzen duten hiru kolektiboen ordezkariak: Isabel Jiménez, AGIFUGIkoa (ijito herria); Elena Olaortua, Aldartekoa (LGTBI) eta Rosabel Argote, CEAREkoa (migratzaileak). Haiekin batera, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak eta Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendariak txostenaren ezaugarriak azaldu zizkieten hedabideei.

Ekitaldiak oihartzun handia izan zuen prentsan.

Sarearen jarduerari buruzko 2017ko txostenak honako kapitulu hauek ditu:

- Sarearen jarduerari buruzko lehenengo kapitulua, non Sareak 2017an artatutako kasuen kopuruari buruzko datuak eta haien analisia aurkezten baitira. Horrez gain, antenek landutako kasuetako batzuen xehetasunak biltzen dira.

Bestalde, kapitulu honetan zehatz-mehatz azaltzen dira Sareak urte horretan egindako jarduera esanguratsuenak: Sareari buruzko informazioa emateko eta Sarea ezagutarazteko jarduerak, prestakuntza-jarduerak, sentsibilizazio-jarduerak eta beste.

- Bigarren kapitulua, berriz, tratu-berdintasunarekin eta diskriminaziorik eza-rekin lotutako esperientzia positiboek buruzkoa da. Zehazki, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko jardunbide ontzat jotzen diren lau ekintza aurkezten dira, Errespetuz, CEAR-Euskadi, Aldarte eta Gehitu antenen ordezkariak idatzitakoak.

- Hirugarren kapitulua araudiari buruzkoa da, eta 2017az geroztik diskriminazioaren eta gorroto-delituen inguruan eman diren arau-proposamen eta ebazpen judizial garrantzitsuenetako batzuk biltzen ditu. Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren ordezkariak egin du.
- Azkenik, laugarren kapituluan, Eraberean Sareak artatu dituen pertsonen egindako hiru elkarrizketa jasotzen dira. Agifugi, CEAR-Euskadi eta Aldarte elkarteek ordezkariak egin zituzten elkarrizketak.

Txostena Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren webgunean txertatu zen <sup>1</sup>. Horrez gain, edizio inprimatu bat ere egin zen, 60 alekoa.

Azkenik, interes bereziko puntuetan zabaldu zen txostena, hala bertsio digitala nola paperekoa.

Hona hemen 2017ko txostenari buruz argitaratutako berriak:

- **Irekia:** [https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/47120-amilibia-red-eraberean-atendio-2017-total-casos-los-que-tras-una-primera-valoracion-detecto-indicios-discriminacion?criterio\\_id=822428&track=1](https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/47120-amilibia-red-eraberean-atendio-2017-total-casos-los-que-tras-una-primera-valoracion-detecto-indicios-discriminacion?criterio_id=822428&track=1)
- **El Correo:** <http://www.elcorreo.com/sociedad/aumenta-numero-personas-20180627135710-nt.html>
- **ETB:** <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/oso/5694072/eraberean-sarea-2017ko-txostena-73-bazterkeria-kasu-atzeman-zituzten-2017an/>
- **El Diario Vasco:** <http://www.diariovasco.com/sociedad/eraberean-detecto-casos-racismo-xenofobia-20180627002412-ntvo.html>

<sup>1</sup> Esteka honetan eskura daiteke txostena: <http://www.euskadi.eus/erabereansarea>

Bestalde, Eraberean Sarea ezagutarazteko lan honen barruan, nabarmentzekoak dira 2018an egindako jarduera batzuk, haien interes berezia dela-eta estrategikoak izan baitaitezke.

### Sarearen zabalkundea, interes estrategikoko ekintzen bidez

- Eraberean Sareak *Gorrito delituen eta diskriminazioaren biktimak: beharrak, laguntza eta erantzunak* izeneko mahai-inguruan parte hartu zuen. EBS Euskal Biktimologia Sozietateak antolatu zuen mahai-ingurua, IVAC-KREI Kriminologiaren Euskal Institutuaren eta Justizia Leheneratzailearen Teoria eta Praktika Laborearen laguntzarekin.

Mahai-ingurua 2018ko maiatzaren 29an egin zen, UPV/EHUren Gipuzkoako Campusean, eta Eraberean Sarearen koordinatzaileak parte hartu zuen hizlari gisa.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak, bertako langileentzako prestakuntza-ziklo baten barruan, *Aniztasunaren errealitatea eta erakunde publikoen rola* izeneko bi saio egin zituen, bat 2018ko ekainaren 19an eta bestea 21ean.

Eraberean Sarearen koordinatzaileak *Euskadiko diskriminazio egoerak: berezitasunak eta bertako tresnak* hitzaldia eman zuen ekainaren 19an.

- Eraberean Sarea Klinika Juridikoen Espainiako Unibertsitate Sarearen VII. Topaketan aurkeztu zen, Salamancan, urriaren 19an.

Topaketan estatuko hainbat klinika juridikoren ordezkariak parte hartu zuten; horrenbestez, garrantzi bereziko foroa izan zen Eraberean Sarea eta egiten duen lana ezagutarazteko.

Euskal Herriko Unibertsitateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoarekin batera parte hartu zuen Eraberean Sareak topaketan. Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordearen arduradunak ordezkatu zuen Sarea.

- Eraberean Sarea Estrategia eta praktika barneratzaileak: hurbilketak eta esperientziak izeneko II. Heziketa Topaketan aurkeztu zen. Garapenerako Lan-kidetzaren Euskal Agentziak antolatu zuen topaketa, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategiaren barruan.

Topaketa Bilbon egin zen (Bolunta aretoan), 2018ko azaroaren 9an, eta Eraberean Sareko Errespetuz elkartearen ordezkariak egin zuen aurkezpena.

- Eraberean Sareak *Ijito LGTBI pertsonen ikusgaitasuna* jardunaldiaren barruko mahai-inguruan parte hartu zuen, LGTBI arloko Aldarte elkarteak antolatuta.
- 2018ko azaroaren 22an egin zen jardunaldia, eta Eraberean Sareak ijito komunitateko elkarteekin batera parte hartu zuen bertan.
- Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendari Ernesto Sáinz Lancharesek Eraberean Sarea aurkeztu zuen Europako eskualdeetan aniztasuna sustatzeari buruzko jardunaldi batean, Bartzelonan, 2018ko abenduaren 18an.
- Jardunaldi horretan, *Recognizing Diversity and Combating Racism* mahai-inguruan, zuzendariak Sarea aurkeztu zuen “*Eraberean: Combating racism network*” izenburupean.

### Sarearen zabalkundea antenen eskutik

Eraberean Sarea osatzen duten erakundeek 2018. urtean lan handia egin dute Sarea zabaltzeko, askotariko espazioetan hainbat jarduera eginez: jardunaldiak, solasaldiak, jai-giroko guneak, topaketa irekiak, unibertsitate-erakundeak, ikastetxeak, argitalpen espezializatuak...

- **CEAR-EUSKADI:**

CEAR-Euskadik hainbat solasaldi, hitzaldi eta prestakuntza-jardunaldiren bidez eman du Eraberean Sarearen berri, eta Sarearen estaldura eta prozedurak azaltzeko atal bat gehitu du guztietan.

Bestalde, CEAR-Euskadik Eraberean Sareari buruzko azalpena, informazioa eta datuak jaso ditu “Herritarrak diskurtso politiko eta xenofoboaren aur-

ka. Suteen aurkako gida" izeneko dibulgaziozko argitalpenean, zeina Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren laguntzarekin egin baitu. "Suteen aurkako gida" herritarrentzat egin da, eta gorrotozko diskurtsoei aurre egiteko 19 tresna eskaintzen ditu.

Gidaren jendaurreko aurkezpenean, Arabako eta Bizkaiko suhiltzaileen parkeetan egindako saioen bitartez, CEAR-Euskadik Sareari buruzko informazio espezifikoa eman zuen.

- **GIPUZKOAKO SOS ARRAZAKERIA:**

Gipuzkoako SOS Arrazakeriak behin baino gehiagotan aurkeztu du Eraberean Sarearen lana; besteak beste, gorroto-delituen gaineko hizketaldi batean, maiatzaren 17an, Durangon.

- **CITE-CCOO:**

CITE-CCOOK CCOOren zenbait batzorde eta ordezkaritzatan zabaldu du Eraberean Sarearen lana, eta diskriminaziozko ekintza bat detektatuz gero nola jokatu azaldu du.

Halaber, Sarearen logoa sartu du "Biltzar" hileroko aldizkarian, Sarea afiliatuen artean ezagutarazte aldera.

- **GURUTZE GORRIA:**

Gurutze Gorriak, Eraberean Sarearen lana zabaltzeko, Sareari buruzko informazioa gehitu du erakundearen aldizkarian; zehazki, lehenengo sei hilekoko argitalpenean, zeina EAEko 69.185 hartzailerengana iritsi baita, bazkideen eta boluntarioen artean.

Halaber, Gurutze Gorriak **Eraberean** Sarearen logoa daraman roll-up bat eskatu du, Gasteizen duen egoitzan jartzeko.

Bestalde, erakundearen berezko jarduerak aprobetxatu dituzte Eraberean Sarearen berri emateko eta erakundeak berak Sareko antena gisa zer zeregin duen azaltzeko. Hain zuzen ere, gizartea migratzaileen egoeraren

gainean hezteko eta sentsibilizatzeko helburuz egin dira honako jarduera hauek:

- “La maleta que más pesa” kanpaina, Gasteizko Ikasbidea, Koldo Mitxelena, Lakua BHI eta Egibide Arriaga ikastetxeetan egindakoa.
- “The Real Pursuit” kanpaina, Adabe eta Ibaiondo auzo-etxeetan, Carmelitas eta Koldo Mitxelena ikastetxeetan eta Dendaraba merkataritza-gunean egindakoa.
- Errefuxiatuen egunaren ospakizuna, ekainaren 20an: bazkari solidarioa egin zen Gurutze Gorriaren Gasteizko egoitzan.
- Stand bat jarri zen Aniztasunaren Azokan, 2018ko urriaren 20an, Gasteizko Urrezko Zeledonak plazan.

#### • **KALE DOR KAYIKO:**

Kale Dor Kayikok informazioa ematen jarraitu du Sareak elkarteko erabiltzaileei ematen dizkien zerbitzuei eta elkarteak parte hartzen duen foro eta lankidetzaz-espazioetan ematen dituen zerbitzuei buruz, hezkuntzaren arloari arreta berezia jarritz.

#### • **AGIFUGI:**

AGIFUGIk Eraberean Sarearen eta elkarteak Sarearen antena gisa duen zereginen berri eman du elkarteko emakumeen arloak antolatutako informazio- eta sentsibilizazio-jardueren bitartez. Zehazki, jarduera hauek egin ditu:

- Hileroko biltzarrak elkartearen egoitzan. Espazio hori erabili dute emakumeen artean eztabaida sorrarazteko eta, halaber, emakumeek beren sendeei Eraberean baliabidearen berri eman ahal izateko.
- “Café-calo” hileroko solasaldiak parte-hartzaileen etxeetan. Aurki ditzaizketen diskriminazio-egoeretarako hezkuntza-arloko jarraibideak sortu dituzte.

- Emakume ijitoei buruzko urteko jardunaldia, Koldo Mitxelena liburutegian. Silvia Alguero izan da hizlaria.
- Informazioa posta elektronikoz, diskriminazio-kasurik egonez gero hezitzaileekin barne-komunikazio eraginkorra izateko.

- **NEVIPEN:**

Lankide dituzten elkarte eta erakundeei Eraberean Sarea ezagutarazteko asmoari eutsi diote. Hainbat espaziotan eman dute Sarearen berri:

- Bilerak emakume ijitoen taldeekin, Otxarkoaga auzoko ikastetxeetan.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko mahaia Errekalden. Inguru horretako hainbat profesionalak parte hartzen dute: udaleko gizarte-zerbitzuek, eremu horretako gizarte- eta hezkuntza-aroko esku-hartze taldeak, Errekaldeko Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Unitateko psikologoek, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek, Haurrentza haur eta gazteen osasun mentaleko zentroak, pediatrek eta eremu horretako osasun mentaleko zentroek. 2018an, gainera, mahaia elkarteko beste antena batekin partekatu da, hots, Errespetuz elkartearekin.
- Sarearen difusioa Deustuko Unibertsitateko lehen mailako Gizarte Hezkuntzako eta Gizarte Laneko ikasleen bidez. Ikasleek Bilbo Zaharra eta San Frantzisko auzoetara eta Nevipen elkartera egin ohi duten bisita aprobetxatu zen.
- Sarearen difusioa Ogiaren Festan stand bat jarrita, 2018ko martxoaren 17an, Bilboko Irala auzoan. Standean, Eraberean Sareari eta erakundeari buruzko informazio- eta sentsibilizazio-materialak erakutsi ziren. Zehazki, Sarearen gaineko informazioa eman zen modu informalean, ijito-kafe batekin batera.



- **GEHITU:**

2018an, Gehituk bide hauetatik eman du Eraberean Sarearen berri:

- Webgunea: Sareari buruzko informazioa eguneratuz eta salaketetarako formulario bat jarritz.
- Magazinea: 101. zenbakian (ekaina) Sarearen iragarkia jarritz, ekainaren 28aren harira.
- Sare sozialak: Erabereani buruzko argitalpenak jarritz elkartearen ohiko sare sozialetan.

Ohiko euskarri horiek erabiltzeaz gain, Gehituk Eraberean Sarearen berri eman du elkartearen beraren jarduera garrantzitsuetan, eta informazio-trip-tikoak ere banatu ditu hainbat espaziotan. Hona aipagarrienak:

Zinemaldiko proiektzioak (Donostia, irailak 21-29), "Ana, el Lesbicomic" komikiaren aurkezpenak (Donostia, Soraluze, Eibar, Iruñea... ekainean), "Teatro con orgullo" antzezlanaren emanaldiak (Lasarte, maiatzak 11 eta ekainak 12), Zinegoak-eko proiektzioak (Gipuzkoako hedapena, Donostia, martxoak 2-4), eta urte osoan parte hartu duen hainbat hitzaldi eta foro: "Diversidad Sexual y de Género, realidades Norte/Sur" (Medicus Mundi, Donostia, martxoak 7), "Delitos de odio y discriminación" (Kriminologoen Euskal Elkarte, EHU, Donostia, maiatzak 29), "Asilo por OSIG" (Donostia, Koldo Mitxelena, azaroak 15), "Recursos de apoyo en diversidad sexual y/o de género" (Mungia, maiatzak 22).

- **ALDARTE:**

Aldarte elkarteak Sarearen eta bertan egindako lanaren berri eman du. Honako hauek dira jarduera aipagarrienak:

- Aldarteren Facebookeko profilean Eraberean Sareari buruzko informazioa argitaratu da bi aldiz, tartean Erabereanen webgunearen esteka, Sarea gehiago ezagutarazteko.

- Aldartek Donostian antolaturiko Sexu-orientazio eta genero-identitateen ondorioz jazotzen diren gorroto-delituen inguruko jardunaldien barruan, maiatzaren 15ean, *“Unibertsitatea eraldaketa eragile gisa sexu-orientazio eta genero-identitateen ondorioz jazotzen diren gorroto-delituen aurrean”* izeneko hitzaldia eman zen eta Sarearen lanari buruz hitz egin zen.

- **ERRESPETUZ:**

Errespetuzek Eraberean Sareari buruzko informazioa zabaldu du eta informazio-triptikoak banatu ditu hitzaldiak eman izan dituen hainbat gunetan. Hauek dira aipagarrienak:

- Santurtziko Kantauri institutua, Gizarte Langintzako ikasleentzat, urtarrilaren 25ean.
- Transexualitatea agerian jartzeari buruzko jardunaldia, martxoaren 15ean, erakundearen beraren egoitzan.
- Trans Memoriaren Jardunaldia Gasteizko Emaize zentroan, martxoaren 31n.
- “Transexualidad diferentes miradas” jardunaldia Bilboko udal-zentroan, apirilaren 10ean.
- LGBTBI+ jardunaldiak Sestaon, maiatzaren 12an.
- Eraberean Sarearen aurkezpena Santurtzin, LGTBIfobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren harira antolatutako jardueren barruan, maiatzaren 17an. Jarduera horien artean, sexu-identitateari buruzko hitzaldi-solasaldi bat egin zen eta hala Eraberean Sarea nola Errespetuzek elkarteko antena gisa egiten duen lana aurkeztu ziren. Erakundeak Sarean duen ordezkariak egin zuen aurkezpena.
- Osasunaren IX. Jardunaldiaren barruan, *“La salud en la diversidad sexual y de género”* izenburupean, Mungian, maiatzaren 22an.
- Informazio-standa LGBTBI Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren harira Santurtzin, ekainaren 15ean eta 16an.



- Hitzaldia LGTBI Harrotasunaren Egunaren harira, Urnietan, ekainaren 25ean.
- Transexualitatearen Despatologizazioaren Eguna, Santurtzin, urriaren 20an.
- Informazio-standa GIBaren Nazioarteko Egunaren harira, Santurtzin, abenduaren 1ean.
- Errekaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan, gizarte- eta hezkuntza-arloko batzordean, abenduaren 10ean.

Horrez gain, EAetik kanpo:

- Estatuko hezkuntza-protokoloen jardunaldiak, Avilésen, apirilaren 14an.
- “La transexualidad desde la sexología” II. Jardunaldiak Valladoliden, apirilaren 21ean.

## Prestakuntza-jarduerak:

Hauek dira Eraberean Sareak 2018an egindako prestakuntza-jarduerak:

### 1. Barne-prestakuntzako saioak, Eraberean Sareak antolatuta

Eraberean Sareko eragileentzako prestakuntza-programa baten barruan, 2018an **barne-prestakuntzako** hiru saio egin dira Sareak berak antolatuta:

#### ▪ Eraberean Sareak aztertutako kasuen analisisian oinarritutako prestakuntza

Antenek prestakuntza praktikoa eskatzen zutela eta, 2017an martxan jarri ziren Sareak trataturiko **kasuen analisisian** oinarrituriko prestakuntza-saio batzuk, eta 2018an ere jarraipena eman zaie.

Hauek dira saioen helburuak:

- Elkarrengandik **ikasteko** espazio gisa erabilgarriak izatea.
- Sarean ikusten diren kasu motak **gizarteratzea**.
- Denek izatea gauzatzen diren **estrategien** berri.
- Sareko **posizionamendu komunak** sendotzea.
- **Etorkizunean** antzeko kasuetan beteko diren **funtzionamendu-jarraibideak** ezartzea.

2018an mota horretako prestakuntza-saio bat egin zen apirilaren 23an, eta hiru kasu aztertu ziren (kolektibo bakoitzeko bat) Sareko hiru antenen eskutik: CI-TE-CCOO (kolektiboa: migratzaileak), Errespetuz (LGTBI) eta Nevipen (ijitoak).

#### ▪ “Suteen aurkako gida” aurkezteko saioa

Maiatzaren 21ean, Eraberean Sarearen osoko bilkuran, “Suteen aurkako gida” aurkeztu zuten Sareko bi antenatako ordezkariak: CEAR-Euskadikoek eta Gipuzkoako SOS Arrazakeriakoek.

“Herriarrak diskurtso politiko eta xenofoboaren aurka. Suteen aurkako gida” dibulgaziozko argitalpen bat da, CEAR-Euskadik Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren laguntzarekin egin, eta herriarrei gorroto xenofoboaren diskurtsoei erantzuteko erreminta-kutxa bat ematea xede duena.

#### ▪ “Trans\*sexualitateak” prestakuntza-saioa

2018ko irailaren 17an, “Trans\*sexualitateak” izeneko prestakuntza-saioa egin zen Gehitu elkartearen egoitzan, errealitate horretara edo horietara hurbiltzeko asmoz.

Bi ordu iraun zuen saioak. “Identitate” kontzeptuaren inguruko sarrera orokor bat egin ostean, trans pertsonen bizipenak osatzen dituzten paradigma nagusiak aletu ziren, hala kode bitarrean oinarritutakoak (gizona-emakumea) nola dualismoak gainditu eta sexu eta generoen unibertso berri bat aldarrikatzen dutenak.

Saioaren bigarren zatian, pertsona transexualengan jarri zen ardatza bereziki, gaur egungo lege-egoeraren nondik norakoak eta horrekin lotutako gai psikosozial interesgarriak azaltzeko.

Saioa elkarrekin eman zuten Erabereanen parte hartzen duten hiru LGTBI+ elkarteetako ordezkariak: Aldarte, Errespetuz eta Gehitu elkarteetakoak. Izan ere, saioari ikuspegi inklusiboa eman nahi izan zioten, errealitate hori askotarikoa izanik hainbat paradigmatazik ulertu eta aztertu baitaiteke.

### SAIOAN ERABILITAKO MATERIALEKO DIAPOSITIBA BAT



Hona hemen prestakuntza-saioaren egitaraua:



## TRANS\*SEXUALITATEAK

### EGITARAUA

#### 1. TRANS ERREALITATEAK

- Identitatearen kontzeptua: hurbilketa.
- Transak: identitatearekin lotutako paradigmak.

#### 2. TRANSEXUALITATEA

- Arlo honetako legeria.
- Alderdi psikosozialak.

**EGUNA:** 2018/09/17

**TOKIA:** Gehituren egoitza

**ORDUTEGIA:** 12:00 - 14:00

▪ **“Lan-arloko diskriminazioa” prestakuntza-saioa**

CITE-CCOOK antolatu eta eman zuen saio hau, 2018ko urriaren 10ean, Eraberean Sareko kideentzat eta tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan lan egiten duten beste profesional batzuentzat.

Saio honetan, besteak beste, CITE-CCOOn Sareko ordezkari Mayra Coladok parte hartu zuen.

Hona hemen prestakuntza-saioaren fitxa teknikoa:

| ERABEREAN                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
|---------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| LAN-ARLOKO DISKRIMINAZIOA |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| Hartzaileen profila       | Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako Eraberean Sareko parte-hartzaileak eta tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan lan egiten duten beste profesional batzuk (batez ere, orientazio-zerbitzuetan, lanerako lanbide-prestakuntzan eta besteen konturako lana eskuratzearen esparruan aritzen direnak).                                                                                                          |
| Eguna/ordutegia:          | 2018/10/05, ostirala - 4 ordu (10:00-14:00)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| Formatua                  | Saio aktiboa izango da eta konpetentzien ikaskuntza bultzatuko da batik bat ariketa praktikoen bitartez, aurkezpen labur eta zuzenekin, eta irakasleen eta parte-hartzaileen arteko gogoeta-trukea sustatuz.                                                                                                                                                                                                                                           |
| Helburuak                 | <ul style="list-style-type: none"><li>- Laneko diskriminazioari buruzko ikuspegi global bat ematea.</li><li>- Parte-hartzaileei gaitasuna ematea lan-arloko diskriminazioaren gainean sentsibilizatu eta trebatzeko ekintzak antolatzeko.</li></ul>                                                                                                                                                                                                    |
| Edukiak                   | <ul style="list-style-type: none"><li>- Diskriminazioa lana eskuratzeko prozesuan eta lan-arloan<ul style="list-style-type: none"><li>• Panoramika: estatistika, txostenak eta azterlanak</li><li>• Ditugun eskubideak:<ul style="list-style-type: none"><li>• Lana lortzeari dagokionez aplikatu behar den araudia</li><li>• Lan-arloan aplikatu behar den araudia</li></ul></li><li>• Judizializazioa eta frogatzeko zailtasunak</li></ul></li></ul> |
| Prestatzaileak            | <ul style="list-style-type: none"><li>• Oscar Moreno eta Estibaliz Montero - CCOOko Zerbitzu Juridikoak</li><li>• Mayra Colado - CITE-CCOOK Eraberean Sarean duen ordezkaria</li><li>• Arantxa Zaguirre Altuna. Abokatua. Immigraziorako Gizarte Bitartekarien Eskolako eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Immigrazioaren eta Komunitate arteko Harremanen Masterreko kolaboratzailea.</li></ul>                                                    |
| Tokia                     | CCOOn egoitza<br>Uribitarte 4<br>48001 Bilbo                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |

## 2. Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoak antolatutako prestakuntza-saioak

Eraberean Sareko kideek **Klinika Juridikoaren prestakuntza-saioetan** parte hartu dute 2018an, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta EHUko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoaren arteko lankidetzaren hitzarmenari esker, kapitulu hone-tako Klinika Juridikoari buruzko atalean aurretik azaldu denez.

Klinika Juridikoak 2017-2018ko ikasturtean bere prestakuntza-planaren barruan eman dituen saioen artean honako hauek nabarmendu daitezke, Sarearentzat interes be-rezia dutelako:

- 2018ko urtarrilaren 25ean, **Immigrazioa eta arraza-diskriminazioa** saioa egin zen.
- 2018ko otsailaren 5ean, **Eraberean Sareko elkarteek aurkeztutako diskri-minazio-kasu errealak eta elkartearen beharrak** saioa egin zen.

Bigarren saio horretan, Eraberean Sareak emandako kasu errealak aurkeztu zi-ren. Horretarako, Eraberean Sareko parte-hartzaileek, Sareko Arreta, Aholkula-ritza eta Laguntza Batzordearekin batera, hainbat antena eta kolektiboren kasu batzuk hautatu zituzten, hala Klinika Juridikoko ikasleentzat nola antenentzat eta Sareko lanarentzat interesgarriak izan zitezkeenak.

Zehazki, Gehitu, AGIFUGI, Gipuzkoako SOS Arrazakeria eta Errespetuz antenek trataturiko kasu errealak aurkeztu ziren.

Erabereanek Sarearen beraren prestakuntzaren barnean sartzen ditu saio hauek, Klinika Juridikoari ekarpen handia egiten diotelako eta, gainera, kasu horiek aztertzea antenentzat interesgarria delako.

- Otsailaren 26an, **Kasuetan aplikatu behar diren komunikazio-teknikak eta -gaitasunak** prestakuntza-saioa egin zen Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Carmen Maganto irakaslearen eskutik.

Saioa bereziki hezigarria izan zen Sarearentzat; izan ere, pertsona edo kolektibo diskriminatuak elkarrizketatzean arretarik onena eman ahal izateko aintzat har-tu behar diren momentuak eta funtsezko alderdiak aletu ziren.

- 2018ko apirilaren 16an, **Litigio estratéxico** prestakuntza-saioa egin zen Wo-men's Link Worldwide elkarteko Estefanny Molina Martínezen eskutik. "Auzi es-

trategikoa” kontzeptuaz beraz gain esperientzia errealak jorratu ziren, eta saioa erabat esanguratsua izan zen Eraberean Sareko kideentzat.

Halaber, Klinika Juridikoak 2018-2019ko ikasturterako osatu duen prestakuntza-planaren barruan, honako saio hauek nabarmendu daitezke:

- Urriaren 17an, Klinika Juridikoaren aurtengo ikasturteko lehenengo saioa egin zen. Saioaren lehenengo zatian, **Klinika Juridikoaren eredia eta funtzionamendu-plana aurkeztu ziren.**

Bigarren zatian, **Erabereanen proposamenak bideratzea** gaitzat hartuta, Eraberean Sareak ikasleei azaldu zien Sareak zein eduki jo dituen interes estrategikotzat, Klinika Juridikoko espezialistek jorra ditzaten eta tratamendu espezializatua egin dezaten, bi erakundeen arteko lankidetzat-hitzarmenean ezartzen den moduan.

- Azaroaren 14an, **Eraberean Sarearen, Berdintasunerako Defendatzaileen eta abokatu-langelen kasu errealen aurkezpena** saioan, Eraberean Sareak berriro aukera izan zuen Klinika Juridikoari kasu gehiago aurkezteko, ondoren aztertze aldera.

Saio honetan, Sarea osatzen duten antena batzuen ordezkariak antenek tratatutako hainbat kolektiboren kasu errealak aurkeztu zituzten, aurreko saioaren metodo berari jarraituz.

### 3. Ertzaintzarekin antolatutako prestakuntza-saioa

**Ertzaintzak Euskadiko Gorroto-gertakari buruzko 2017ko Txostena** aurkeztu zuen, *EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrak* Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailarentzat egindakoa. Ertzaintzako zuzendari Gervasio Gabiron dok parte hartu zuen txostenaren aurkezpenean.

Aurkezpene Sarearen osoko bilkura baten barruan egin zen, uztailaren 11n, Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzan (Kale Nagusia 85).

Aurkezpene oso interesgarria izan zen Eraberean Sarearentzat, eta antena guztiak bertaratu ziren; antena batzuetatik, gainera, pertsona bat baino gehiago joan ziren.

Helburua zen, alde batetik, txosteneko edukia ezagutaraztea eta, bestetik, txostenean azaltzen den egoerari eta batzuek eta besteek arlo horretan egiten dugun lanari buruz denen artean hausnartzea.

## Sentsibilizazio-jarduerak:

Hauek dira Eraberean Sareak 2018an egindako sentsibilizazio-jarduerak:

- **Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza. Oinarrizko gida eguneratzea eta paperean inprimatzea.**<sup>2</sup>

2018aren hasieran, Eraberean Sareak “Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza. Oinarrizko Gida” eguneratu zuen (2017an egin zen bertsio digitala).

Helburua da gida tresna baliagarria izatea diskriminazioaren arloan lan egiten duten guztientzat, gai horren gainean gehiago sentsibilizatzeko eta diskriminazio-kasu posibleak detektatu ahal izateko. Sareko hainbat erakundek egin dituzte gidarako ekarpenak.

Gainera, 2018an gida horren 500 ale inprimatu dira, eta bertsio digitalean zein paperean banatu da.

---

<sup>2</sup> Gida Sarearen webgunean eskura daiteke: <http://www.euskadi.eus/erabereansarea>



Hona hemen 2018ko martxoaren 2an **irekia**-n horri buruz argitaratutako berria:

## Eraberean Sareak online argitaratu du tratu-berdintasunaren eta bazterketarik ezaren aldeko oinarrizko gida

2018.eko martxoak 02

- **Batik bat, eskumen-eremuaren arabera, hirugarrenek jasandako bazterketa-gertakariei eta/edo gorroto-delituei lotutako demandak jaso ditzaketenei zuzentzen zaie.**
- **Gida hori [www.euskadi.eus/erabereansarea](http://www.euskadi.eus/erabereansarea) web-orrian ere badago.**

Vitoria-Gasteiz, 2018/03/02

**Eraberean** Sarea Eusko Jaurlaritzak sustatzen du, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez, arraza, etnia edo nazioa eta sexu-orientazioa eta -identitatea eta genero-identitatea dela-eta egiten den bazterketaren aurka borrokatzeko. Sarean **immigrazioaren, ijitoen** herriaren eta **LGTBI** kolektiboen sustapenaren eremuan lan egiten duten gizarte-erakundeek parte hartzen dute. Sareak online argitaratu du tratu-berdintasunaren eta bazterketarik ezaren aldeko oinarrizko gida bat, eta, laster, paperean ere argitaratuko du.

Batik bat, eskumen-eremuaren arabera, hirugarrenek jasandako bazterketa-gertakariei eta/edo gorroto-delituei lotutako demandak jaso ditzaketenei zuzentzen zaie. Eraberean, informazioa ematen laguntzeko eta sinergiak sortzeko tresna da, tratu-berdintasunerako eta bazterketarik ezerako printzipioaren aplikazioan osagarritasun egokia eduki ahal izateko. Azken batean, arraza, etnia edo nazioa eta sexu-orientazioa eta -identitatea eta genero-identitatea dela-eta egiten den bazterketaren aurka borrokatzeko tresna da.

Dokumentuak bazterketaren eta gorroto-delituen aurkako borrokan dauden **ozto-poak** zehazten ditu, kontzeptuak adibide praktikoekin argitzen ditu, araudi-esparruak gogorarazten ditu, bazterketarako eta/edo gorroto-delitueterako joera duten eremuak ezartzen ditu, EAEn intereseko baliabideak jasotzen ditu, bazterketako eta/edo gorroto-delituko gertakari baten aurrean jarduteko oinarrizko orientazioak ematen ditu, eta Eraberean zer den gogorarazten du.

Eraberean Sareak arreta bereziko zerbitzua eskaintzen du; arraza, etnia edo nazioa eta sexu-orientazioa eta -identitatea eta genero-identitatea dela-eta egiten den **bazterketaren** biktima izan daitezkeenei eta horrelako bazterketa-egoeren berri duten pertsonen laguntza eta aholkularitza eskaintzen die. Arreta aurrez aurrekoa edo telefonikoa izan daiteke, edo posta elektronikoen bidezkoa.

Egoera jakin batzuen aurrean **laguntza** eskaintzeaz gainera, Eraberean Sareak gizarte-kontzientziarioko eta -sentsibilizazioko prebentzio-plangintzarekin lan egiten du. Horretarako, sentsibilizazio-jarduketak, eragileei prestakuntza emateko jarduketak, zabalkunderako materialak sortzeko, gizarte-instituzio eta -erakundeei aholkularitza emateko jarduketak antolatzen ditu, besteak beste.

Honako elkarte hauek eratzen dute Eraberean Sarea: CEAR Euskadi, Gurutze Gorria, Gao Lacho Drom, Aldarte, Kale Dor Kayiko, Nevipen, Errespetuz, CITE-CC.OO, Gehitu, AGIFUGI eta SOS Arrazakeria Gipuzkoa. Sareak hiru lurraldeetan dihardu, eta, batik bat, bizitza pribatuaren eremuan zentratzen da. Elkarte horiek Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hedatzen dira, eta "antena" lanak egiten dituzte, diskriminazio-egoerak antzemateko eta pertsona eta taldeei arreta emateko.

#### ▪ **+EGIN BAT DISKRIMINAZIORIK GABEKO ALOKAIRUEKIN+ kanpaina**

2018an, etxebizitzaren alokairuan izan ohi den diskriminazioaren aurka sentsibilizatze kanpaina bat egin da EGIN BAT DISKRIMINAZIORIK GABEKO ALOKAIRUEKIN lelopean, diskriminaziorik gabeko etxe-alokairua bultzatzeko.

Inor ez da harritzen higiezin merkatu sartzeko orduan diskriminazio-fenomenoa egotearekin. Besteak beste, migratzaileek, errefuxiatuek eta ijitoek benetako zailtasunak izaten dituzte etxebizitza bat alokatzen saiatzen direnean.



Esparru horretan detektatu diren desparekotasunak direla eta, Eraberean Sareak etxebizitza alokatzean izan ohi den diskriminazioari buruz sentsibilizatzeko kanpaina bat egitea proposatu zuen, CEAR Euskadiren egitasmo batetik abiatuta.

Eusko Jaurlaritzak ere bat egin zuen kanpainaren helburuarekin, eta, Eraberean Sarearekin batera, bere gain hartu zuen kanpainaren lidergoa.

Kanpaina oro har herritar guztientzat, etxejabeentzat, etxe-agentzientzat eta alokairuak kudeatzeko zerbitzuentzat antolatu zen, eta helburu zuen etxebizitzaren alokairuarekin lotutako diskriminazioa geldiaraziko duten jokabide positiboak indartzea eta jendea horren gainean sentsibilizatzea.

Hauek izan ziren jendea sentsibilizatzeko erabilitako euskarriak: irratia, prentsa idatzia, kartelak eta triptikoak.

Kanpaina 2018ko azaroaren 5etik 18ra bitartean egin zen, eta egun horietan guztietan +EGIN BAT DISKRIMINAZIOARI GABEKO ALOKAIKUEKIN+ mezua ikusi eta entzun ahal izan zen prentsa idatzian eta irratan.

Gainera, 4.000 kartel eta 40.000 informazio-eskuorri banatu ziren EAEko hiru lurralde historikoetan. Hauek izan ziren hartzaileetako batzuk: 557 etxe-agentzia (higiezinaren jabetzako agente gisa eta higiezinaren jabetzako kudeaketa eta administrazio gisa erregistratutakoak), Alokabideren bulegoak, Bilboko Udal Etxebizitzak, kontsumo-organismoak eta -bulegoak, gizarte-zerbitzuen bulegoak, Arartekoaren bulegoak, auzo-etxeak...

### **Kanpainaren zabalkundea antenen bitartez:**

Eraberean Sarea osatzen duten elkarteetako kideek aktiboki parte hartu dute intergarritzat jo dituzten puntuetan materiala banatuz (etxe-agentzietan, auzo-elkarreetan, etab.).

Atena batzuek, gainera, beste jarduera batzuk ere egin dituzte:

**CEAR**-Euskadik hainbat komunikabidetan eman du kanpainaren berri, eta azaldu du migratzaileek eta errefuxiatuek zein egoerari aurre egin behar izaten dioten alokatzeko etxebizitza baten bila dabilzanean.

“Si eres extranjero, es muy difícil alquilar en Vitoria” albisteak (Atzerritarra bazara, oso zaila duzu Gasteizen alokatzea) eta “Inmigrantes denuncian que el ‘rechazo’ hace ‘muy difícil’ encontrar piso en alquiler” artikuluak (Immigranteek salatu dute ‘arbuioak asko zailtzen’ duela alokatzeko etxeak aurkitzea, El Correo, 2018ko azaroaren 9a) oso ondo ematen dute egoera horren berri. Artikulu horretan, CEAR-Euskadik Sarean duen ordezkariak Gasteizen norbait etxe bat alokatzen saiatu zenean gertatutako diskriminazio-kasuetako bat kontatzen du, antena horrek berak tratatua.

Gogoan izan behar dugu Eraberean Sareak 2017an trataturiko arlo pribatuko diskriminazio-kasuen % 46 etheen alokairuarekin lotuta gertatu zirela. Kasuetako gehienak diskriminazioaren aurka modu kolektiboan borrokatzeko antolatutako ekinaldi baten barruan erregistratu zituen CEAR-Euskadik; ekinaldi hori, hain zuzen ere, +EGIN BAT DISKRIMINAZIORIK GABEKO ALOKAIRUEKIN+ kanpainaren abiapuntua izan zen.

Bestalde, Gipuzkoako **SOS Arrazakeriaren** eskutik, CEAR-Euskadik Sarean duen ordezkariak “Testing-Etxebizitzarako sarbidea eta diskriminaziorik eza Gipuzkoan” jardunaldian aurkeztu zuen kanpaina, 2018ko irailaren 18an, Donostian (SOS Arrazakeriak antolatu zuen jardunaldia, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera).

Era berean, “Maizterra izan nahi, baina ezin” artikuluan, Gipuzkoako SOS Arrazakeriak eta CEAR-Euskadik ohartarazten dute errefuxiatuek eta immigranteek diskriminazioa jasaten dutela etxe bat alokatu nahi dutenean.


**Gurutze Gorriak**, berriz, bere ohiko sare sozialetan zabaldu du kanpaina (Facebooken, Twitterren eta Instagramen), eta 4.500 hartzailerengana iritsi da. Hala, herritarrak sentsibilizatu nahi izan dira aurreiritzirik gabeko alokairuak sustatzeko, honelako mezuekin:

“Etxebizitza baten jabe bazara eta alokatu egin nahi baduzu, egin bat Eraberean Sarearekin: diskriminaziorik GABE, aurreiritzirik GABE eta zurrumurrurik GABE”.

“Egin bat Eraberean Sarearekin eta sustatu etxe-alokairuarekin lotutako diskriminaziorik eza, kontuan harturik tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza gizarte moderno orok bete beharreko helburua direla”.

**+EGIN BAT DISKRIMINAZIORIK GABEKO ALOKAIRUEKIN+** kanpainako kartela  
eta informazio-orriak

**+ EGIN BAT DISKRIMINAZIORIK GABEKO ALOKAIRUEKIN +**  
**+ SÚMATE A LOS ALQUILERES QUE SUMAN +**



ALOKATU DISKRIMINAZIORIK GABE, AURREIRITZIRIK GABE ETA ZURRUMURRURIK GABE  
ALQUILA SIN DISCRIMINACIÓN, CON CERO PREJUICIOS Y LIBRE DE RUMORES

[www.euskadi.eus/erabereansarea](http://www.euskadi.eus/erabereansarea)



## EGIN BAT DISKRIMINAZIORIK GABEKO ALOKAIRUEKIN

### SÚMATE A LOS ALQUILERES QUE SUMAN

La Red Eraberean, impulsada por el Gobierno Vasco y diversas organizaciones sociales, y que aborda la discriminación por origen racial, étnico o nacional, y por orientación e identidad sexual e identidad de género en Euzkadi, quiere que te sumes a los alquileres que suman.

Queremos que te sumes a la red y fomentes la no discriminación en el ámbito del alquiler de vivienda. Queremos que la ciudadanía sea proactiva. Y es que entendemos que la calidad de vida y la no discriminación suponen un objetivo que toda sociedad moderna debe aspirar a cumplir.

En 2017, el 16% de los casos de discriminación en el ámbito privado atendidos y recogidos en el informe anual de la Red Eraberean tuvo lugar en el campo de la vivienda. Es por ello que te invitamos a sumarte a los alquileres que no discriminan.

Eraberean Sareko Erakundeak eta zerbitutokiak erakunde bakoitzaren datu, antzez, etnia edo nazio jatorriak, sexu orientazioa edo identitateak eta genero identitateak eragindako diskriminazioari aurre egitera deia. Hori dela eta, Eraberean Sareak diskriminaziorik gabeko alokairuekin bat egitera gonbidatzen zaitu.

Sarearen bat egitea eta ezabatzaren ahalakaren eremuari diskriminaziorik eza sartzea desatzen nahi dugu. Hentarako proaktibo izan beharrezkoak dira. Gure ustez, Eraberean Sareak eta diskriminaziorik eza aliatu modernoaren helburuak behar ditu.

Eraberean Sarearen urteko txostenaren arabera, 2017an artatutako eta jasotako diskriminazio-kasuen artean, eremu pribatuak, %46 etxebizitzaren eremuari izan ziren. Hori dela eta, geroztik egiten ditugun, diskriminazioaren eraginak ahalakuekin bat egitea.




## EGIN BAT! DISKRIMINAZIOARIK GABE AURREIRITZIRIK GABE ZURRUMURRURIK GABE

¡SÚMATE! SIN DISCRIMINACIÓN CERO PREJUICIOS LIBRE DE RUMORES

[www.euskadi.eus/erabereansarea](http://www.euskadi.eus/erabereansarea)  
[www.euskadi.eus/rederaberean](http://www.euskadi.eus/rederaberean)



## + EGIN BAT DISKRIMINAZIOARIK GABEKO ALOKAIRUEKIN + + SÚMATE A LOS ALQUILERES QUE SUMAN +



ALOKATU DISKRIMINAZIOARIK GABE,  
AURREIRITZIRIK GABE ETA ZURRUMURRURIK GABE  
ALQUILA SIN DISCRIMINACIÓN,  
CON CERO PREJUICIOS Y LIBRE DE RUMORES



## EGIN BAT DISKRIMINAZIOARIK GABEKO ALOKAIRUEKIN

### SÚMATE A LOS ALQUILERES QUE SUMAN

La Red Eraberean, impulsada por el Gobierno Vasco y diversas organizaciones sociales, y que aborda la discriminación por origen racial, étnico o nacional, y por orientación e identidad sexual e identidad de género en Euzkadi, quiere que te sumes a los alquileres que suman.

Queremos que te sumes a la red y fomentes la no discriminación en el ámbito del alquiler de vivienda. Queremos que la ciudadanía sea proactiva. Y es que entendemos que la calidad de vida y la no discriminación suponen un objetivo que toda sociedad moderna debe aspirar a cumplir.

En 2017, el 16% de los casos de discriminación en el ámbito privado atendidos y recogidos en el informe anual de la Red Eraberean tuvo lugar en el campo de la vivienda. Es por ello que te invitamos a sumarte a los alquileres que no discriminan.

Eraberean Sareko Erakundeak eta zerbitutokiak erakunde bakoitzaren datu, antzez, etnia edo nazio jatorriak, sexu orientazioa edo identitateak eta genero identitateak eragindako diskriminazioari aurre egitera deia. Hori dela eta, Eraberean Sareak diskriminaziorik gabeko alokairuekin bat egitera gonbidatzen zaitu.

Sarearen bat egitea eta ezabatzaren ahalakaren eremuari diskriminaziorik eza sartzea desatzen nahi dugu. Hentarako proaktibo izan beharrezkoak dira. Gure ustez, Eraberean Sareak eta diskriminaziorik eza aliatu modernoaren helburuak behar ditu.

Eraberean Sarearen urteko txostenaren arabera, 2017an artatutako eta jasotako diskriminazio-kasuen artean, eremu pribatuak, %46 etxebizitzaren eremuari izan ziren. Hori dela eta, geroztik egiten ditugun, diskriminazioaren eraginak ahalakuekin bat egitea.




## EGIN BAT! DISKRIMINAZIOARIK GABE AURREIRITZIRIK GABE ZURRUMURRURIK GABE

¡SÚMATE! SIN DISCRIMINACIÓN CERO PREJUICIOS LIBRE DE RUMORES

[www.euskadi.eus/erabereansarea](http://www.euskadi.eus/erabereansarea)  
[www.euskadi.eus/rederaberean](http://www.euskadi.eus/rederaberean)



## + EGIN BAT DISKRIMINAZIOARIK GABEKO ALOKAIRUEKIN + + SÚMATE A LOS ALQUILERES QUE SUMAN +



ALOKATU DISKRIMINAZIOARIK GABE,  
AURREIRITZIRIK GABE ETA ZURRUMURRURIK GABE  
ALQUILA SIN DISCRIMINACIÓN,  
CON CERO PREJUICIOS Y LIBRE DE RUMORES



Kanpainaren hasierak oihartzuna izan zuen prentsan.

Hona hemen 2018ko azaroaren 4an **irekia**-n horri buruz argitaratutako prentsa-oharra:

Eraberean Sareak etxebizitzaren alokairua diskriminaziorik gabe sustatzeko kanpaina bat aurkeztu du

- ***‘Egin bat diskriminaziorik gabeko alokairuekin’* lelopean diseinatu da**
- **Hiru lurraldeetan 40.000 liburuxka eta 4.000 kartel banatuko dira**

VG 18 11 04

Eraberean Sareak, bihar astelehena, etxebizitzaren alokairuaren esparruan diskriminazio eza ***eta tratuan berdintasuna*** sustatzeko sentsibilizazio- eta informazio-kanpaina jarriko du abian. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez, Eusko Jaurlaritzak babestutako erakunde horren barne biltzen dira **immigrazioaren** esparruan diharduten, eta **ijitoen herria eta LGTBI** kolektiboa sustatzen dituzten hainbat gizarte-erakunde. Sareak, hain zuzen ere, arraza-, etnia- edo nazionalitate-jatorriagatik, eta sexu-orientazio eta -nortasunagatik eta genero-identitateagatik gertatzen den diskriminazioaren aurka borrokatzen du.

*‘Egin bat diskriminaziorik gabeko alokairuekin’* lelopean diseinatutako kanpainarako, sareak **liburuxka** bat, **kartel** bat, **bannerrak**, prentsa idatzian **iragarkiak** eta irratian **iragarki laburrak** editatu ditu. Kanpainari berari eta sareari buruzko informazioa biltzen duen liburuxkatik **40.000** ale egin dira. Ale horiek lurralde osoan banatuko dira, **4.000** kartelak bezala. Eraberean Sarearen helburua da liburuxka horiek etxebizitza baten jabe diren eta alokatzeko asmoa duten pertsona fisikoengana iristea.

Liburuxkak eta kartelak **Alokabideren** bulegoetara, Arartekoaren egoitzetara, **higiezi-  
nen agentzietara**, Eusko Jaurlaritzaren **lurralde-ordezkaritzara**, oinarritzko gizar-  
te-zerbitzuen bulegoetara, eta kontsumoko bulegoetara eta erakundeetara igorriko  
dira, besteak beste.

“Esparru honetan **behin eta berriro** aurkitzen ditugu mota honetako kasuak. Ho-  
rregatik, Eraberean Sarea eta Eusko Jaurlaritza lan-ildo espezifiko honetan **murgildu**  
gara, alokairuaren esparruan hautematen den diskriminazioari aurre egiteko”, azaldu  
du **Ernesto Sainzek**, Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzen-  
dariak.

Euskadiko gizarte zibilean eta politika publikoetan **tratu berdintasuna eta bazter-  
keta eza** zaintzeko eginkizuna duen sareak hautemandakoaren arabera, **esparru pri-  
batuan** gertatutako bazterketa-kasu asko etxebizitzaren alorrean eman dira —2017an  
% 46, sarearen azken urteko memoriaren arabera—, bereziki alokairuaren esparruan.

Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendariak gogoratu du “tratu berdintasuna eta  
bazterketa eza edozein gizarte modernok bete beharko lituzkeen **helburuak** direla.”  
Halaber, honako hau azpimarratu du: “Eraberean sareak pertsonen zerbitzura ipintzen  
ditu informazio, aholkularitza, orientabide eta beste hainbat motatako mekanismoak  
eta tresnak, tratu baztertzailer baten bidez euren eskubideak urratzen ari direla ikus-  
tean eskubide horiek bete daitezten lortzeko”.

## Eraberean Sarea

Eusko Jaurlaritzaz gain, **Eraberean Sarea** ondorengo elkarte hauek osatzen dute: Al-  
darte, CEAR Euskadi, Gurutze Gorria, Gao Lacho Drom, CITE-CC.OO Bizkaia, Errespetuz,  
Kale Dor Kayiko, Nevipen, AGIFUGI, Gehitu eta SOS Arrazakeria Gipuzkoa. Elkar-  
teek Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egiten dute lan, eta egoera baztertzailerak hautema-  
teko antena gisa jarduten dute; halaber, pertsonen eta taldeen arreta eskaintzen diete.

Sarearen kanpoko jarduerak, **prebentzioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa** es-  
kaintzen ditu eta kasuen **arreta zuzena** ematen du, tratu baztertzailer edo gorroto-de-  
litu baten biktimei aholkularitza eta laguntza emanez. Azken hori da, hain zuzen ere,  
sarearen jardueraren funtsezko eginkizuna. Arreta bertatik bertara, telefonoz edo  
e-mail bidez eskaini daiteke.

Artikulu gehiago hemen:

<https://www.diariovasco.com/sociedad/euskadi-lanza-campana-20181105001559-ntvo.html>

<https://www.europapress.es/euskadi/noticia-euskadi-pone-marcha-campana-fomenta-no-haya-discriminacion-alquiler-viviendas-20181104125049.html>

### Jarduera osagarriak:

Ezin dira Eraberean Sarearen jarduera propioen barruan sartu, baina Sareak antolatutako jardueren osagarri gisa egin dira eta bat egiten dute Erabereanen logikarekin.

Jardueretako batzuk hainbat esparrutan egiten dituzte zenbait antenak, jarduera propio gisa edo beste antena batzuekin elkarlanean. Beste batzuk, berriz, Biltzen zerbitzuaren jarduerak dira.

Honako hauek aipa daitezke 2018an egindako jarduera osagarrien artean:

- **“GORROTO-DELITUEN AURREAN BEGIRADAK BATUZ” NAZIOARTEKO TOPAKETA**

Aldartek “Gorrotodelituen aurrean begiradak batuz” Nazioarteko Topaketa egin zuen Donostian, maiatzaren 18an, eta sexu-orientazioarekin eta genero-identitatearekin lotutako gorrotodelituak, gaur egungo egoera eta aurre egiteko estrategiak aztertu zituzten, estatuko zein nazioarteko hizlarien ekarpenekin.

Gainera, maiatzaren 14tik 20ra, maiatzak 17 Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren harira, honako jarduera hauek egin dira:

|                                          |                                                                     |                                                                                                                                              |
|------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Maiatzak 15,<br>asteartea<br>16:00-18:30 | DONOSTIA<br>Zuzenbide Fakultatea,<br>Klinika Juridikoaren<br>aretoa | Unibertsitatea eraldaketa eragile gisa sexu-orientazio eta genero-identitateen ondorioz jazotzen diren gorroto-delituen aurrean.             |
| Maiatzak 17,<br>osteguna<br>19:00hs      | ZARAUTZ<br>Putzuzulo Gaztetxea                                      | 'Sexu-orientazio eta genero-identitateen ondorioz jazotzen diren gorroto-delituei begirada orokorra' erakusketa eta tailer parte-hartzailea. |

#### ▪ **PRESTAKUNTZA-ZIKLOA: "ANIZTASUNAREN POLIZIA-KUDEAKETA"**

2017an hasi bazen ere, 2018an burutu da Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzako Ertzaintzaren Zuzendaritzarekin batera abiarazitako prestakuntza-programa hau.

Ez ditugu luze eta zabal azalduko programaren xehetasunak, aurreko urteko txostenean azaldu baikenituen (ikusi Eraberean Sarearen jarduerari buruzko 2017ko txostena). Alabaina, uste dugu komenigarria dela txosten honetan programaren elementu esanguratsuenen laburpena jasotzea:

- Irakasleak: Prestakuntza Eraberean Sarea osatzen duten hiru kolektiboetako kide diren hainbat erakundetako ordezkariak eman dute, hau da, ijitoen, migratzaileen eta LGTBI kolektiboaren erakundeetako ordezkariak.
- Helburuak: Aipatutako kolektiboek dagokienez tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa beteko duten polizia-jarduketak indartzea, eta poliziakideek egiten duten boluntario-lanean aniztasunaren ikuspegia txertatzea.
- Hartzaileak: Ertzaintzako langileentzat da programa, eta, bereziki, euren zereginen artean, segurtasun-kidegoek berez dituzten zereginen gain, boluntario-lanak ere badituztenentzat. Guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko ikas-

tetxeetan eta gizarte-entitateetan lan egiten duten 250 poliziakidek parte hartzen dute programa honetan.

- Prestakuntza-programa / metodologia: Prestakuntza-zikloak 9 saio ditu guztira, hiru modulutan egituratuak: hastapena, aurreratua eta goi-mailakoa. Zikloa ikuspegi interaktibotik eta batez ere praktikotik antolatu da, eta modulu bakoitzak aniztasunaren kudeaketaren, diskriminazioaren eta gorroto-deltuen alorretako gai generikoei heltzen die, baita tartean dauden hiru kolektiboen berariazko alderdiei ere, hau da, migratzaileen, ijitoen eta LGTBI kolektiboko kideen berariazko alderdiei.

Jarraian, 2018an egin diren prestakuntza-saio guztiak zehazten ditugu:

| <b>2018ko urtarrila</b> | <b>Taldea</b> | <b>Maila</b> | <b>Txanda</b> | <b>Herria</b> |
|-------------------------|---------------|--------------|---------------|---------------|
| 08-09-10                | 5             | Hastapenekoa | 1.a           | Araba         |
| 15-16-17                | 1             | Aurreratua   | 1.a           | Iurreta       |
| 29-30-31                | 3             | Hastapenekoa | 1.a           | Iurreta       |
| <b>2018ko otsaila</b>   | <b>Taldea</b> | <b>Maila</b> | <b>Txanda</b> | <b>Herria</b> |
| 05-06-07                | 4             | Aurreratua   | 1.a           | Iurreta       |
| 12-13-14                | 5             | Hastapenekoa | 2.a           | Iurreta       |
| 26-27-28                | 2             | Aurreratua   | 1.a           | Oiartzun      |
| <b>2018ko martxoa</b>   | <b>Taldea</b> | <b>Maila</b> | <b>Txanda</b> | <b>Herria</b> |
| 05-06-07                | 3             | Hastapenekoa | 2.a           | Oiartzun      |
| 12-13-14                | 4             | Aurreratua   | 2.a           | Oiartzun      |
| <b>2018ko apirila</b>   | <b>Taldea</b> | <b>Maila</b> | <b>Txanda</b> | <b>Herria</b> |
| 09-10-11                | 3             | Aurreratua   | 1.a           | Iurreta       |
| 16-17-18                | 4             | Goi-maila    | 1.a           | Iurreta       |

| <b>2018ko maiatza</b> | <b>Taldea</b> | <b>Maila</b> | <b>Txanda</b> | <b>Herria</b> |
|-----------------------|---------------|--------------|---------------|---------------|
| 07-08-09              | 2             | Aurreratua   | 2.a           | Iurreta       |
| 14-15-16              | 3             | Aurreratua   | 2.a           | Oiartzun      |
| 28-29-30              | 5             | Aurreratua   | 1.a           | Araba         |
| <b>2018ko ekaina</b>  | <b>Taldea</b> | <b>Maila</b> | <b>Txanda</b> | <b>Herria</b> |
| 04-05-06              | 1             | Aurreratua   | 2.a           | Oiartzun      |
| 11-12-13              | 2             | Goi-maila    | 1.a           | Oiartzun      |
| <b>2018ko iraila</b>  | <b>Taldea</b> | <b>Maila</b> | <b>Txanda</b> | <b>Herria</b> |
| 03-04-05              | 4             | Goi-maila    | 2.a           | Oiartzun      |
| 10-11-12              | 5             | Aurreratua   | 2.a           | Erandio       |
| 24-25-26              | 2             | Goi-maila    | 2.a           | Erandio       |
| <b>2018 urria</b>     | <b>Taldea</b> | <b>Maila</b> | <b>Txanda</b> | <b>Herria</b> |
| 01-02-03              | 3             | Goi-maila    | 1.a           | Erandio       |
| 08-09-10              | 4             | Goi-maila    | 2.a           | Oiartzun      |
| 15-16-17              | 5             | Goi-maila    | 1.a           | Araba         |
| 22-23-24              | 1             | Goi-maila    | 1.a           | Erandio       |
| <b>2018ko azaroa</b>  | <b>Taldea</b> | <b>Maila</b> | <b>Txanda</b> | <b>Herria</b> |
| 05-06-07              | 3             | Goi-maila    | 2.a           | Oiartzun      |
| 19-20-21              | 5             | Goi-maila    | 2.a           | Erandio       |
| 26-27-28              | 1             | Goi-maila    | 2.a           | Oiartzun      |

#### ▪ JARDUNALDIAK: IMMIGRAZIOA ETA INTEGRAZIOA EAE-N

Biltzenek eta Ikuspegik (Immigrazioaren Euskal Behatokia) antolatutako jardunaldiak; 2018ko azaroaren 15ean eta 16an, Bilbon.

Jardunaldiotan, "Aniztasunaren kudeaketa, migrazio-politikak eta zeharkakotasuna" izenburupean, migrazio-politikak eta hainbat esparrutako zeharkakotasunaren kudeaketa jorratu dira, besteak beste.

Halaber, Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendari Ernesto Sainz Lancharesek Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana aurkeztu du, eta, Eraberean Sareari dagokionez, Sareak planaren barruan zer egiten duen azaldu du.

## **Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik ezari buruzko I. Euskal Kongresua**

Eraberean Sarearen jardunari buruzko kapitulu hau amaitzeko, honako jarduera hau nabarmendu behar dugu, 2018an interes eta eragin berezia izan duelako:

**Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik ezari buruzko I. Euskal Kongresua** egin zuen Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak, Eraberean Sarearen ekimenez, Gasteizen, 2018ko abenduaren 13an eta 14an.

Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik ezari buruzko I. Euskal Kongresua, zalantzarik gabe, Eraberean Sareak 2018an egindako lanik garrantzitsuena izan da.

Jakina, jardueraren konplexutasuna kontuan hartuta, beste zenbait erakunde ere aritu dira lanean Eraberean Sarearekin batera. Hain zuzen ere, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren barruko Biltzen-Integratzaile eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuak kudeatu du kongresuaren idazkaritza teknikoa, eta hura arduratu da antolakuntzaz ere.

Kongresuaren helburua izan da diskriminazioarekin eta gorroto-delituekin lotutako esperientziak hausnartzea eta partekatzea, agenda politiko, instituzional eta sozialean tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa oraindik eta gehiago indartzeko asmoz eta etorkizunean ekintzak alor horretara bideratuko dituzten argibideak identifikatze aldera.

Diziplina askotako batzorde tekniko bat eratu da kongresua antolatzeko, eta, Biltzenek zuzendurik, kongresuaren diseinuarekin, edukiarekin, hizlarien hautaketarekin eta beste hainbat konturekin lotutako erabakiak hartu ditu.

Batzorde tekniko horrek hainbat erakunde eta sektoretako ordezkariak bildu ditu:

- Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzaren Biltzen zerbitzua (Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jaurlaritza)
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza (Hezkuntza Saila, Eusko Jaurlaritza)
- Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa (EHU-UPV)
- Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokia (EHU-UPV)
- Arabako Abokatuen Elkargoa
- Giza Eskubideen Deustuko Institutua
- Kazetarien Euskal Elkargoa
- Eraberean Sarea osatzen duten hiru kolektiboetako kide diren elkarteak; zehazki, CEAR-Euskadi (migratzaileak), Gehitu (LGTBI kolektiboa) eta Nevipen (Ijito-he-  
rria).

Hona hemen Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik ezari buruzko I. Euskal Kongresuaren egitaraua:

EGITARAUA

**ABENDUAK**  
**13-14**  
**2018**

**EUROPA**  
**BILTZAR ETXEA**  
**Vitoria-Gasteiz**

*Askeak eta berdinak duintasun eta eskubideei dagokienez*

**TRATU-BERDINTASUNARI ETA**  
**DISKRIMINAZIORIK EZARI BURUZKO**  
**I EUSKAL KONGRESUA**



Abenduaren 13a, osteguna

|                       |                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
|-----------------------|----------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 9:30-9:45             | Sarrera                          | Akreditazioak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| 9:45-10:00            | Francisco de Vitoria Auditoriuma | <b>HASIERA</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| 10:00-11:00           | Francisco de Vitoria Auditoriuma | <b>PONENTZIA MARKOA: GUZTIONA, NORBERARENA.</b><br>Sami Naïr irakaslea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| Atsedenaldia          |                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| 11:30-12:30           | Francisco de Vitoria Auditoriuma | <b>KAZETARITZA ETA KONPROMISOA BERDINTASUNAREN ETA DISKRIMINAZIO EZAREN ALDE.</b><br>Alfonso Armada. Kazetaria. Mugarik Gabeko Kazetarien elkartearen lehendakaria.<br>Mónica Bernabé. Afganistanen berriemaile izandakoa.<br>Fidel Raso. Fotokazetaria.<br>Moderatzailea: Julio Flor. Kazetaria.                                                                             |
| 12:30-13:30           | Francisco de Vitoria Auditoriuma | <b>EKIMEN POLITIKOAK ETA LEGE-MAILAKOAK DISKRIMINAZIOAREN ARLOAN.</b><br>Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordean ordezkatutako talde politikoak.<br>Moderatzailea: Amaia Goikoetxea. Kazetaria.                                                                                                                                                        |
| Bazkaltzeko etenaldia |                                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| 15:30-17:30           | Florida Aretoa                   | <b>1. MAHAIA. DISKRIMINAZIOA SARE SOZIALETAN: GORROTOAREN AURKAKO ZIBERAKTIBISMOA.</b><br>Alex Cabo. (PROXI) Xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako online egitasmoa.<br>Demetrio Gómez. Ververipen.<br>Natalia Pérez (Naty Penadas)/ Alba Vidal (Koala rabioso). Koalak Studios, Spanish Queens Koalak Studios, Spanish Queens.<br>Moderatzailea: Ainara Perez. Saregune. |
|                       | La Hechicera Aretoa              | <b>2. MAHAIA. DUINTASUNA ENPLEGUAN: AGENDA PARTEKATUA.</b><br>Manuel Velázquez. Diskriminazioa eta Jazarpen Moralaren Euskal Behatokia.<br>Ghassan Saliba. Gizarte-kohesioaren Arloa, Kataluniako CCOO.<br>Marta Fernández. REDI Red Empresarial por la Diversidad y la Inclusión LGBTI.<br>Moderatzailea: Carmen Botea. Biltzen.                                             |
|                       | Sorginetxe Aretoa                | <b>3. MAHAIA. DISKRIMINAZIOA ETA ESPAZIO PUBLIKOA: ANIZTASUNA ETA ERRONKAK.</b><br>Lala Mugika. Aldarte Elkartea.<br>Gorka Urrutia. Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.<br>Ismael Cortés. Erdialdeko Europako Unibertsitatea - Romani Studies Program.<br>Moderatzailea: Maya Amrane. Biltzen.                                                               |

ABENDUAK

13-14

2018

EUROPA

BILTZAR ETXEA

Vitoria-Gasteiz

Askeak eta berdinak duintasun eta eskubideei dagokienez

**TRATU-BERDINTASUNARI ETA DISKRIMINAZIORIK EZARI BURUZKO**

**I EUSKAL KONGRESUA**

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

eraberean

TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA

RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO Y NO DISCRIMINACIÓN

biltzen

Quintanilla eta Koldarika Solidaritatea Leuzak Leuzak

Servicio Vasco de Integración y Convivencia Municipal

Abenduaren 14a, ostirala

|              |                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
|--------------|---------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 9:30-10:15   | Gasteiz Aretoa      | <b>EUSKADI DISKRIMINAZIOAREN AURREAN: ERRONKAK ETA AUKERAK.</b><br>Ernesto Sainz. Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendaria. Eusko Jaurlaritza.<br>Monika Hernando. Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria.<br>Faustino López de Foronda. Arartekoaren idazkari nagusia.<br>Moderatzailea: Eva Domaika. Kazetaria.                                                                                                                               |
|              | La Hechicera Aretoa | <b>4. MAHAIA. DISKRIMINAZIOA ETA GORROTO-DELITUAK: OPERADORE JURIDIKOEN IKUSPEGIA.</b><br>Begoña Castro. Madrilgo Abokatuen Elkargo Prestua.<br>Jesús Alfonso Poncela. Arabako Lurralde Auzitegiko magistratua.<br>Ana Laura Núñez. Bizkaiko Probintzia Fiskaltza.<br>Moderatzailea: Esther Santiago. Arabako Abokatuen Elkargo Ohoretsua.                                                                                                             |
|              | Sorginetxe Aretoa   | <b>5. MAHAIA. PROTOKOLO INSTITUZIONALAK DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO BORROKAN.</b><br>Gervasio Gabirondo. Ertzaintzaren zuzendaria.<br>Javier Sáez del Álamo. FSG. Europako Kontseiluko kide ohia.<br>Tomás Fernández. Gorroto-deltituen Nazio Bulegoa.<br>Moderatzailea: Diógenes Sabana. Biltzen.                                                                                                                                                       |
|              | Florida Aretoa      | <b>6. MAHAIA. KEXEN ETA SALAKETEN KUDEAKETA, GERTAERA DISKRIMINATZAILEEN ETA GORROTO-DELITUEN INGURUAN.</b><br>Jon Mirena Landa. Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedraren zuzendaria. EHU.<br>Itziar Barrenkua. Gizarteratze Arloa, migratzaileak, ijitoak eta beste gutxiengo kultural batzuk. Ararteko.<br>Mikel Mazkarian. SOS Arrazakeria/Eraberean Sarea.<br>Moderatzailea: Ana Pérez Machio. Justizia Sozialaren Aldeko Klinika Juridika. |
| Atsedenaldia |                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| 12:15-13:15  | Gasteiz Aretoa      | <b>DISKRIMINAZIOA HEZKUNTZATIK PREBENITZEA ETA BIZIKIDETZA SUSTATZEA.</b><br>Lucía Torrealday. Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria. Hezkuntza Saila, Eusko Jaurlaritza.<br>Aitor Albizu. Bizikasi Egitasmoa. Berritzegune Nagusia. Hezkuntza Saila, Eusko Jaurlaritza.                                                                                                                                                                                  |
| 13:15-13:45  | Gasteiz Aretoa      | <b>MAHAIETAN ATERATAKO ONDORIOAK.</b><br>1. mahaia: Saray Borja. Ververipen.<br>2. mahaia: Pablo Pascual. Biltzen.<br>3. mahaia: Joseba Martínez de Guereño. Aldarte.<br>4. mahaia: Susana Sucunza. ICAA.<br>5. mahaia: Miguel Viñas. CEAR Euskadi.<br>6. mahaia: Elena Olaortua. Aldarte                                                                                                                                                              |
| 13:45-14:00  | Gasteiz Aretoa      | <b>ONDORIOAK ETA BUKAERA.</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |

**ABENDUAK**  
**13-14**  
**2018**

**EUROPA**  
**BILTZAR ETXEA**  
**Vitoria-Gasteiz**

*Askeak eta berdinak duintasun eta eskubideei dagokienez*

**TRATU-BERDINTASUNARI ETA**  
**DISKRIMINAZIOARIK EZARI BURUZKO**  
**I EUSKAL KONGRESUA**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTU ETZA BERRITE  
POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES



**eraberean**

TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA  
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA  
RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO  
Y NO DISCRIMINACIÓN



**#Biltzen**

Comisión de Migración y Refugiados. Línea Social  
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Urbana

## Batzorde teknikoak



Kongresuak berezitasun handi bat izan du diseinuari dagokionez: Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik ezari buruzko I. Euskal Kongresua egin den aldi berean, diskriminazioaren kontrako borrokari buruzko zenbait jarduera antolatu dira egitarau osagarri moduan.

Egitarau osagarri hori hiru lurralde historikoetan egin da kongresua egin den aste berean; gainera, abenduaren 10ean eman zaio hasiera, hau da, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean, eta kongresua bera egitarau osoaren amaiera izan da.

Hona hemen jarduera osagarrien egitaraua:



EGITARAU OSAGARRIA

Askeak eta berdinak duintasun eta eskubideei dagokienez

**TRATU-BERDINTASUNARI ETA DISKRIMINAZIORIK EZARI BURUZKO I EUSKAL KONGRESUA**

*Libres e iguales en dignidad y derechos*

**I CONGRESO VASCO SOBRE IGUALDAD DE TRATO Y NO DISCRIMINACIÓN**

**EUROPA BILTZAR**  
**ETXEA** PALACIO DE CONGRESOS EUROPA  
Vitoria-Gasteiz

**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO  
EUSKAL GOZARTE POLITIKARIO SAREA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

**eraberean**  
TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA  
RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO Y NO DISCRIMINACIÓN

**#biltzen**  
Elaboratzen eta Kulturalizazio Biltzarren Taldak Zehaztuak  
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural

EGITARAU OSAGARRIA

|   | JARDUERAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | DATA        | TOKIA                                                     | ORDUA         |
|---|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|-----------------------------------------------------------|---------------|
| 1 | <b>"BERDINAK ESKUBIDEEI DAGOKIENEZ. BERDINTASUNAREN ALDEKO ABOKATUTZA" ERAKUSKETA</b><br>30 FOTOKAZETARIK GURE GIZARTEAN DAGOEN DESBERDINTASUNA ERAKUTSI ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUTE.                                                                                                       | ABENDUAK 10 | VITORIA-GASTEIZ<br>ZUZENTZIA JAUREGIA                     | 13:00         |
| 2 | <b>DISKRIMINAZIOA, ZAINTZA ETA MIGRAZIOA</b><br>ETXEKO LANETAN ETA ZAINTZA-LANETAN DIHARDUTEN EMAKUME MIGRATZAILEEK BIZI DITUZTEN DISKRIMINAZIO-EGOERAK ETA ABUSUAK BISTARAZTEA.                                                                                                                               | ABENDUAK 10 | DONOSTIA<br>KOLDO MITXELENA KULTURUNEA<br>HITZALDI-ARETOA | 9:30 - 14:00  |
| 3 | <b>BERDINTASUNAREN BETEBEHAR ETIKOA</b><br>BERDINTASUNAREN JATORRI ETIKOAREN INGURUKO HAUSNARKETA: BERDINTASUNA, GURE ORDENAMENTU JURIDIKOAREN FUNTSEZKO PRINTZPIO GISA, GIZARTE DEMOKRATIKO GUZTIEN ZUTABE NAGUSIA DA. JAVIER SÁDABA IDAZLE ETA FILOSOFOAREN HITZALDIA.                                       | ABENDUAK 10 | DONOSTIA EHU<br>ZUZENBIDE FAKULTATEA                      | 16:00 - 18:00 |
| 4 | <b>DIVERSITY CHARTER EUROPAKO EKIMENAREN AURKEZPENA</b><br>ENPRESA ETA ERAKUNDEETAN ANIZTASUNAREN KUDEAKETA ETA BARNERATZEA BULTZATZEKO EUROPAKO BATZORDEAREN PROIEKTUA.                                                                                                                                       | ABENDUAK 11 | BILBAO<br>EUSKO JAURLARITZA.<br>ARETO NAGUSIA             | 10:00 - 13:00 |
| 5 | <b>GURUTZATZEN DIREN DISKRIMINAZIOAK: MIGRATZAILEEN, IJITOEN, LGTBI PERTSONEN ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ERREALITATEAREN INGURUKO AZTERKETA.</b><br>ANIZTASUN FUNTZIONALAREN ETA BESTE ANIZTASUN-MOTA BATZUEN ARTEKO ELKARGUNEA. HORREN INGURUKO HIZKETALDIA, ASKOTARIKO DISKRIMINAZIOAREN IKUSPUNTUTIK. | ABENDUAK 11 | DONOSTIA<br>GFA<br>ETORKIZUNA ERAIKIZ GUNEA               | 10:00 - 12:00 |
| 6 | <b>ANIZTASUNA ZAHARREN ARTEAN</b><br>ZAHARREN ARTEAN DAGOEN ANIZTASUNAREN INGURUKO HIZKETALDIA. BEREZIKI ETORKINEN, IJITOEN ETA LGTBI PERTSONEN KOLEKTIBOETAKOEN ARTEAN. ZAHARREKIN ESKU-HARTZE EGOERA OROKOR BATERAKO ESKAKIZUNAK ETA ERRONKAK: ZAINTZA, AISIA, LAGUNTZA SOZIALA ETA JURIDIKOA, ETA ABAR.     | ABENDUAK 12 | BILBAO<br>EDE FUNDAZIOA<br>EMAKTIVA GELA                  | 17:00 - 19:00 |
| 7 | <b>AUSARTAK</b><br>ROSALIND WILLIAMS ETA ZESHAN MUHAMMED DISKRIMINAZIOAREN BIKTIMAK IZAN ZIREN. ESTRASBURGOKO GIZA ESKUBIDEEN EUROPAKO AUZITEGIRAINO ERAMAN ZITUZTEN EUREN SALAKETAK. HIZKETALDIA ETA ESPERIENZIA PARTEKATZEA.                                                                                 | ABENDUAK 13 | VITORIA-GASTEIZ<br>ARTIUM                                 | 19:00 - 21:00 |

Aintzat hartu behar da Biltzeneko talde osoak eta Eraberean Sareko antenetako kideek egin duten lana; izan ere, aktiboki parte hartu dute kongresua antolatzeke batzordean, hitzaldiak aurkezten, lan-mahaiak bideratzen eta dinamizatzen, eta kongresua egin zen lekua antolatzen eta logistika-lanetan.

Hauek dira antenek egindako lanetako batzuk:

- **Gipuzkoako SOS Arrazakeriak** “Kexen eta salaketen kudeaketa, gertaera diskriminatzaileen eta gorroto-delituen inguruan” izeneko 6. mahaian parte hartu du.
- **Aldartek** “Diskriminazioa eta espazio publikoa: aniztasuna eta erronkak” izeneko 3. mahaiko ondorioak eta “Kexen eta salaketen kudeaketa, gertaera diskriminatzaileen eta gorroto-delituen inguruan” izeneko 6. mahaikoak atera ditu.
- **CEAR Euskadik** “Protokolo instituzionalak diskriminazioaren aurkako borrokan” izeneko 5. mahaiko ondorioak atera ditu.

Bestalde, CEAR Euskadik “AUSARTAK” hitzaldia antolatu du egitarau osagarriaren barruan.

Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik ezari buruzko I. Euskal Kongresuak oihartzun handia izan du prentsan.

Hona hemen 2018ko azaroaren 22an **irekian** kongresuari buruz argitaratutako berria:

Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko I. Euskal Kongresuan hogeita hamar bat aditu batuko dira, Europa Jauregian, abenduaren 13an eta 14an

- **Sami Naïr politologo, filosofo eta soziologoak emango du lehen hitzaldia**

VG 2018 11 22

Abenduaren 13an eta 14an, Vitoria-Gasteizko Europa Jauregian Eraberean Sareak Biltzen - Kultura arteko Integrazioaren eta Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuaren eta **Eusko Jaurlaritzako** Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eskutik antolatu duen Tratu Berdintasunari eta *Diskriminaziorik Ezari buruzko I. Euskal Kongresua* izango da. Kongresuak bi jardunaldi izango ditu eta, horietan, **hogeita hamar** bat aditu baino gehiago batuko dira eta, horrela, euskal hiriburua tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren inguruko epizentro bilakatuko da. Bertan, hainbat sektoretako eragile **ordezkariak** batuko dira, besteak beste, abokatutzaren, hezkuntzaren, enpleguaren, epailetzaren, komunikabideen, segurtasunaren arloetakoak.

**Beatriz Artolazabal** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak zera esan du: "diskriminazioaren eta gorroto-delituen aurkako borroka berdintasunaren arloko, aniztasunaren kudeaketaren arloko eta **gizarte-kohesioko** politika aurreratuen ardatzetako bat da, bai eta gaitzespeneko eta bazterketako jarreraren eta portaeren eraginpean dauden eta gizarte-egoera **ahuletan** dauden pertsonak gizarteratzeko eta beraien justiziarako edozein plangintzaren funtsezko oinarri ere".

**Artolazabalek** berak irekiko du kongresua inaugurazio-hitzaldiarekin, ostegunean, abenduaren 13an, Francisco de Vitoria ekitaldi-aretoan. Ondoren, **Sami Naïr** politologoak, filosofoak eta soziologoak, migrazio-mugimenduen espezialistak, hitzaldia emango du. Naïr Paris VIII Unibertsitateko Zientzia Politikoetako katedraduna da, eta Frantziako Gobernuak garapenikideko eta nazioarteko migrazioetako ministerio arteko ordezkaria izan da, bai eta **Europako Parlamentuko diputatua** ere.

Eraberean Sarearen eginkizuna Euskadiko politika publikoetan eta **sozietate zibilean** tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde egitea da, eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta honako hiru begirada hauekin zerikusia duten erakundeetako ordezkariak eratzten dute: **ijitoak, migratzaileak** eta **LGTBI** kolektiboa. Hori dela eta, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko I. Euskal Kongresu honen helburua da eragileak diskriminazio-moduen eta analisi-perspektiben inguruan jarduteko, hausnartzeko eta hausnarketa horiek trukatzeko leku iraunkorra sortzea.

### Jardunaldiak

Lehenengo jardunaldian, zenbait aditu honako gai hauez arituko dira: **kazetaritza** eta konpromisoa berdintasunaren eta diskriminazio ezaren alde; ekimen **politikoak** eta lege-mailakoak diskriminazioaren arloan; diskriminazioa **sare sozialetan**: gorrotoaren aurkako ziberaktibismoa; duintasuna **enpleguan**: agenda partekatua; eta diskriminazioa eta **espazio publikoa**: aniztasuna eta erronkak.

Mahai-inguru horietan, besteak beste, honako hauek parte hartuko dute: **Alfonso Armada** Reporteros Sin Fronteras-eko kazetaria eta presidentea; **Nazanin Armanian** analista politikoa; **Fidel Raso** fotokazetaria; **Alex Cabo** Online contra la Xenofobia y la Intolerancia (PROXI) proiektukoa; **Demetrio Gómez** Ververipen-ekoa; **Natalia Pérez** (Naty Penadas) eta Alba Vidal (Koala rabioso) Koalak Studios, Spanish Queens-ekoak; **Manuel Velázquez** Laneko Diskriminazioa eta Jazarpen Moralaren Euskal Behatokikoa; **Ghassan Saliba** Comisiones Obreras de Catalunya-ko gizarte-kohesioaren arlokoa; **Marta Fernández** Berdintasunaren aldeko Enpresen Sarekoa; **Lala Mugika** Aldarte elkartekoa; **Gorka Urrutia** Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Deusto Institutukoa; eta **Ismael Cortés** Central European University-ko Romanian Studies Program.

Bigarren jardunaldian, ostiralean, hilaren 14an, **Ernesto Sainz** Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendariak, **Monika Hernando** Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariak eta **Faustino López de Foronda** Arartekoaren bulegoko idazkari nagusiak jardungo dute elkarriketan honako gai honen inguruan: “Euskadi diskriminazioaren aurrean: erronkak eta aukerak”. Mahai-inguruan jardungo dute, **Eva Domaika** kazetariak zuzenduta.

Ostiralean beste gai batzuk ere aztertuko dira: diskriminazioa eta gorroto-delituak: operadore **juridikoen** ikuspegia; **protokolo** instituzionalak diskriminazioaren aurkako

borrokan; **kexen eta salaketen** kudeaketa, gertakari diskriminatzaileen eta gorroto-delituen inguruan; eta diskriminazioa **hezkuntzatik** prebenitzea eta bizikidetza sustatzea. Ondoren, paraleloan eratuko den mahai bakoitzaren ondorioak batuko dira, eta laburpena egingo da.

Mahaietan honako hauek parte hartuko dute: **Begoña Castro** Madrilgo Abokatuen Elkargokoa; **Jesús Alfonso Poncela** Arabako Probintzia Auzitegiko magistratua; **Ana Laura Núñez** Bizkaiko Probintzia Fiskaltzakoa; **Gervasio Gabirondo** Ertzaintzako zuzendaria; **Javier Sáez del Álamo** Europako Kontseiluko kontseilari ohia; **Tomás Fernández** Gorroto Delituen Bulego Nazionalekoa; **Jon Mirena Landa** UPV/EHUko Giza Eskubideak eta Botere Publikoak katedraren zuzendaria; **Itziar Barrenkua** Arartekoaren bulegoko gizarte-inklusioaren, etorkinen, ijitoen eta beste gutxiengo kultural batzuen arlokoa; **Mikel Mazkiaran** SOS Racismo Estatuko federaziokoa eta Eraberean Sareko kidea; **Lucía Torrealdai** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria; eta Aitor Albizu Bizikasi ekimenekoa.

### Eraberean Sarea

Eusko Jaurlaritzaz gainera, honako elkarte hauek ere eratzen dute Eraberean Sarea: Aldarte, CEAR Euskadi, Gurutze Gorria, Gao Lacho Drom, CITE-CC.OO Bizkaia, Errespetuz, Kale Dor Kayiko, Nevipen, AGIFUGI, Gehitu eta SOS Racismo Gipuzkoa. Elkarte horiek Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan daude, eta antena gisa dihardute, diskriminazio-egoerak antzemateko eta pertsona eta taldeei arreta emateko.

Sarearen kanpo-jarduerak hainbat dira, besteak beste, prebentzioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa, kasuen zuzeneko arreta, diskriminazio-tratuaren edo gorroto-delituaren biktima diren pertsona edo taldeentzako aholkularitza eta laguntza. Azken hori da sarearen jardueraren funtsezko alderdia. Arreta aurrez aurrekoa eta telefonikoa edo posta elektronikoaren bidezkoa izan daiteke.

## 2. lan-ardatza:

### Arreta, Aholkularitza eta Laguntza

Lan-ardatz hau diskriminaziozko tratu edo gertakari baten biktimatzat, edo arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazio edo -identitateak eta genero-identitateak eragindako gorroto-delitu baten biktimatzat har daitezkeen pertsonak edo taldeak zuzenean artatzeari dagokio.

Laneko ardatz honen barruan uztartzen dira, alde batetik, Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordeak egindako lana eta, bestetik, diskriminazio-kasuak izan daitezkeenak detektatzeko eta tratatzeko orduan antenek egindako lana.

#### - Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordea

Batzordeak, organo juridiko espezializatua den aldetik, antenei laguntza ematen die tratatzen dituzten diskriminazio-kasuen kudeaketa teknikoa eta juridikoa egiteko.

2018an ere, Batzordeak aurreko urteetako funtzio eta jarduerak egin ditu: kasuak aztertu eta jarraitu beharreko estrategia juridikoak proposatu; estrategikoak izan daitezkeenak identifikatu; arreta juridikoa hobetzeko proposamenak egin; TBDE arloan espezializatutako dokumentazio juridikoa helarazi; prestakuntza juridikoko proposamenak egin, eta prestatzaile gisa parte hartu barneko eta kanpoko prestakuntza-ekintzetan.

#### - Antenak: diskriminazio-kasu posibleak detektatzea eta arreta ematea

**Antenek** diskriminaziozko gertakariak **detektatzen** dituzte eta **zuzeneko arreta** ematen diete diskriminaziozko tratu edo gorrotozko delitu baten biktima izan daitezkeen pertsona edo kolektiboei.

2018an ere, antenek arreta-zerbitzu hau eman dute. Artatutako kasuei buruzko informazioa, ohikoa den moduan, Eraberean Sarearen aplikazio informatikoan jaso da; aplikazio horrek, hain zuzen, erabateko konfidentzialtasuna bermatzen du datu pertsonalak babesteari dagokionez, eta sarbide mugatua dauka.


### DATU ESANGURATSUENAK

Jarraian, Sareak 2018an artatutako kasuen datu esanguratsuenak eta datu horien analisia azaltzen dira.

Sarearen jarduerari buruzko txosten honetako grafikoak egiteko, Sarearen aplikazio informatikoan bildutako datuak hartu dira oinarri gisa.

Testu osoan, antenek landutako kasuetako batzuei buruzko azalpen laburrak ere tartekatzen dira, kasuok gehiago argitze aldera, kopuru soilekin batera egoera errealetako batzuk erakutsiz. Horrela, informazioari ikuspegi gizatiarragoa ematen zaio.

2018an, Eraberean Sareko antenek 65 kasu artatu dituzte guztira.




Antenek erregistratutako 65 kasu horien artean, 41 (% 63) ustezko arrazakeria- edo xenofobia-kasu gisa tratatu dira, hau da, etnia, jatorri edo nazionalitateak eragindako diskriminazio- edo gorroto-kasuak izan direlakoan. 41 horietatik, 24 kasu (guztien % 37) migratzaileen begiradari dagozkio, eta 17 (guztien % 16), berriz, ijitoen begiradari.


Gainerako 24 kasuak (% 37) ustezko LGTBIfobia kasuak izan dira, hau da, sexu- eta genero-orientazio edo -identitateak eragindako diskriminazio- edo gorroto-kasuak.

Alde horretatik, aipatzekoa da ugaritu egin direla ijitoen begiradaren barruko pertsona edo kolektiboekin lotutako diskriminazioak salatzen direneko kasuak.


2018an tratatutako kasu guztien artetik, balorazio sakona egin ostean eta erregistratutako gertakari bakoitzari buruzko informazioa oinarri hartuta, erabaki da kasuen % 29an (19 kasu) ez zegoela diskriminazio-zantzu garbirik, edo ezin izan da diskriminazioa frogatu.




Grafiko honetan, xehetasunak begiraden arabera erakusten dira:



Nola jakin den diskriminaziozko gertakari edo tratua berri:



2018an, pertsona edo kolektibo kaltetuaren eskariz abiarazitako kasuen ehunekoak nabarmen egin du gora: kasu guztien % 74 izan dira horiek, eta gainerako % 26ak, berriz, Sarearen ekimenez edo hirugarren pertsona edo elkarte batek eskatuta ireki dira. Datu hori esanguratsua da, esan nahi baitu elkarteak pixkanaka diskriminazioaren biktimentzako erreferente bilakatzen ari direla Sarea martxan dagoenetik. Hori atzerritarrek eta ijitoekin igartzen da batez ere.



Ijitoen begiradari dagokionez, elkarte erreferenteek lan garrantzitsua egin dute azken urte hauetan. Lehen, ijitoek zailtasunak zituzten ustezko diskriminazio-gertakariak salatzeak –egoera horiek bizitzea normalizat jotzeagatik izan daiteke hori, batik bat–, eta oraindik ere badituzte zailtasunak; alabaina, aurtan begirada horretako pertsona askoz gehiagok jo dute antenetara diskriminaziozko tratu bat salatzeri. Berdin gertatu da atzeritarrekin ere: nabarmen areagotu da pertsona kaltetuaren eskariz erregistratutako kasuen kopurua.

LGTBI begiradari dagokionez, gora egin dute bai Sarearen beraren ekimenez irekitako kasuek, bai hirugarren pertsona edo entitate bat antenekin harremanetan jartzearen ondorioz irekitakoek.


Hala eta guztiz ere, aurtan ere kasu gutxi iritsi dira Sarearen elkarteetako batera beste elkarte batzuetatik bideratuta; zehazki, aurreko urteko kasu kopuru berbera iritsi da. Hori kontuan hartuta, beharbada komenigarria litzateke beste entitate edo organismo batzuekin lan egiteko sistemen bitartez Sarearen estaldura handitzeko aukera aintzat hartzea.

**Bilbo, 2018ko abendua. Transexualitate-egoeran dagoen adingabe baten familia-medikuak uko egin dio hura Genero Identitatearen Unitatera bideratzeari.**

2018ko abenduan, transexualitate-egoeran dagoen adingabe bat lehen mailako arretako zentrora joan zen amarekin batera Deustura, Bilbora, Gurutzetako Ospitaleko (Barakaldo, Bizkaia) Genero Identitatearen Unitatera (GIU) bidera zezaten. Adingabearen familia-medikuak, baina, uko egin zion hura GIUra bideratzeari, eta horren ordeaz psikiatriako unitatera bideratu behar zela adierazi zuen.

Hori ikusirik, adingabearen ama harremanetan jarri zen Berdindu Ibiltarirekin, hau da, Eusko Jaurlaritzak sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako gaietarako duen informazio- eta arreta-zerbitzuarekin, zeinetan Errespetuz elkarteak parte hartzen baitu. Bada, Errespetuz, egoeraren larritasuna kontuan hartuta, adingabearen medikuarekin jarri zen harremanetan, eta hala araudia nola kasu horietan esku hartzeko protokoloa bidaliko zizkiola esan zion. Medikuek uko egin zion ezer jasotzeko eta adingabea bideratzeari, eta behin eta berriz genero maskulinoa erabiltzen zuen hura aipatzeko. Hori ikusita, Errespetuz elkarteak jakinarazi zion adingabeak bere sentitzen zuen generoa erabiliz hitz egin behar ziola, EAEn indarrean dagoen araudiaren arabera. Medikuek hau erantzun zion: "Bere agirietan jartzen duena oinarri hartuta tratatuko dut". Orduan, Errespetuzek indarrean dagoen araudia berriro hizpidera ekarri eta amaiera eman zion elkarrizketari, eta kexa aurkeztu zion arlo horretaz arduratzen den Osakidetza zerbitzuari. Hurrengo egunean, lehen mailako arretako zentroa harremanetan jarri zen adingabearen amarekin, adingabea jada bideratu zutela adierazteko. ■

Bada txosten honetan nabarmendu nahi dugun beste aldagai bat: artatutako pertsonen profila. Datuak bereizteko orduan, kontuan hartu da pertsona horiek zer eremu geografikotatik datozen eta zer sexutakoak diren (hurrengo grafikoan).




Sareak artatutako pertsonen % 66 Espainiako estatukoak dira, eta gainerakoak (% 34) atzerritarrak. Lehenengo kategorian, ijitoak, LGTBI kolektiboko kide gehienak eta migratzaileetako batzuk daude.

Bigarren kategorian, LGTBI kolektiboko bi kide ditugu: antena erreferenteetako batera jo dute sexu-orientazioagatik eta jatorriagatik ustez diskriminazio bikoitza jaso duten egoerak salatzen. Artatutako gainerako pertsonak jatorri- edo etnia-arrazoiengatik diskriminatzeagatik artatu ziren.

Artatutako kasuak, nazionalitatearen arabera

|                    |    |                     |   |
|--------------------|----|---------------------|---|
| Espainiako estatua | 43 | Ekuador             | 1 |
| Maroko             | 7  | Brasil              | 1 |
| Nigeria            | 4  | Senegal             | 1 |
| Venezuela          | 2  | Palestina           | 1 |
| Honduras           | 2  | Mendebaldeko Sahara | 1 |
| Afganistan         | 1  | Pakistan            | 1 |


Artatutako pertsonaren profila  
Jatorrizko eremu geografikoa begiraden arabera



**Gasteiz, 2018ko urtarrila. Gizon magrebtar batek diskriminazio bikoitza jasan du, jatorriagatik eta sexu-orientazioagatik.**

2018ko urtarrilean, gizon bati eraso egin zioten Gasteizko harrera-etxearen aurrean, homosexuala izateagatik. Iraindu, jo eta mehatxatu egin zuten, eta, erasoaren ondorioz, betaurrekoak hautsi zizkioten. Erasotzaileak hil egingo zuela eta komunitate magrebtarreko beste kide guztiei homosexuala dela kontatuko ziela mehatxu egin zion. Ertzaintza gertakarien lekura bertaratu zen, eta ertzainak eurak erasotzailearen mehatxuen lekuko izan ziren. Aldarte elkarteak bere gain hartu du pertsona kaltetuaren laguntza juridikoa, eta prozesu judizialean laguntzen ari zaio ■


Deigarria da migrazioen begiradan agertzen diren espainiarren datua. Uste dugu kopuru handi hori EAEn migrazio-proiektuak kontsolidatu izanaren emaitza dela; izan ere, EAEn gero eta gehiago dira nazionalizatuta dauden atzerritarrak. Halere, migratzaileek espainiar nazionalitatea eskuratzeak ez dakar berekin haiek diskriminazio gutxiago jasatea.



Sareak erabiltzen duen kasu-erregistroko datu-orriaren arabera, hauek izan dira kaltetuak: 14 gizon (pertsona guztien % 22), 17 emakume (% 26) eta bi pertsona ez-binario edo intersexual (% 3), kategorietako bakoitzean.

2018an, txosten hau egiten denetik lehenengo aldiz, beste bi kategoria gehitu ditugu kasuen errealitatea zehaztasun handiagoz islatzen delakoan: kolektibo oso bati eragiten dioten kasuak eta pertsona bati baino gehiagori eragiten dieten kasuak. Bi kategoria horietan, kasu guztien gainerako % 49ak biltzen dira; izan ere, kasuok ezin dira gizon, emakume, ez-binario edo intersexual gisa sailkatu, kolektibo bati edo pertsona bati baino gehiagori eragiten dieten kasuetan datu hori ez delako zehaztu antenek informazioa erregistratzean.


Horri dagokionez, deigarria da ijitoen begiradaren barruan pertsona bati baino gehiagori eragiten dieten kasuen kopurua. Horren arrazoia, hein batean, kasu horien tipologia izan daiteke; erreferentzia egiten diete, batez ere, diskriminazioa etxebizitza lortzeko orduan gertatzen den eta familia-nukleoei eragiten dien egoerei eta saltokietako diskriminazio-egoerei.



Aurrez esan den moduan, eta eskura zegoen informazioan oinarrituta, erabaki da artatutako kasuen % 29an ez dagoela zantzu garbirik edo nahikorik diskriminaziozko tratu bat gertatu dela egiaztatzeko. Jarraian aurkezten diren kopuruek, ehunekoek eta grafikoek kasuen gainerako % 71ri dagozkien egoerei soilik egiten diete erreferentzia, hau da, gutxienez diskriminazio-tratu bat egon dela ebatzi den 46 kasuei.

Diskriminazio-gertakari motari dagokionez, kasuen % 96 (44) zuzeneko diskriminazioa izan dira, eta, horien artetik, % 8 hutsegitez edo diskriminazio-aginduen ondorioz gertatu dira.


Gainerako kasuetan, % 4an, zeharkako diskriminazioa gertatu da.



Diskriminazioa hutsegitez gertatu den kasu biak immigrazioarekin lotuta daude; kasu horietan, zehazki, diskriminatzaileak pentsatu du biktima etnia-jatorri edo nazionalitate jakin batekoa zela, soil-soilik haren ezaugarri fisikoetan oinarrituta.

Kasuetako lehenengoan, jatorri brasildarreko pertsona bati eraso egin zioten bide publikoan, ustez poltsa bat lapurtu zuen jatorri magrebtarreko beste bat zela pentsatu zutelako. Kasuetako bigarrenean, atzeritarren identifikazio-zenbakia eskatu zioten CEAREko abokatu espainiar bati.

Diskriminazio-aginduen ondoriozko kasuek ijito-komunitateko kideei eragiten diete; hain zuzen, etxe-agentziek esaten dute jabeek berariaz hala agindu dietelako ez dietela etxerik alokatzen ijitoei edo ijito familiei.



### ETXEBIZITZA ESKURATZEA

***Jabe batzuek ez dute nahi guk beren etxea ijítoei, mairuei edo beltzei alokatzerik.***

2018an, lau kexa jaso dira etxebizitza bat lortzeko zailtasunak izateagatik, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban. Bizkaian eta Gipuzkoan, kaltetuak ijítoak dira, eta Araban, berriz, nigeriarra da kaltetua.

Era berean, nabarmendu behar da CEAR-Euskadik Araban bildu dituen eta jatorri desberdinetako migratzaileei eragiten zieten beste hiru kasuetan, eskura zegoen informazioan oinarrituta, erabaki dela ez zegoela diskriminazio-zantzu nahikorik, frogak falta zirelako; izan ere, besteak beste, ez zen egin argi eta garbi xenofobotzat jotzeko moduko adierazpenik. Hala eta guztiz ere, kaltetu guztiek sentitzen zuten etxebizitzak ikusteko ordua hartu ondoren mesfidantzaz eta errezeloz tratatzen zituztela, eta azkenean baztertu egiten zituzten etxe guztietan, arrazoi objektiborik gabe. Hala migratzaileek nola ijítoek etxebizitza eskuratzeko prozesuan izaten dituzten zailtasun horiek 2017ko txostenean ere aipatu zituzten Eraberean Sareko antenek, eta, horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak “Egin bat diskriminaziorik gabeko alokairuekin” kanpaina jarri zuen martxan.

Diskriminazio-zantzu arrazoizkoak eta nahikoak zeudela ebatzi den kasuetan, diskriminatzaileak etxe-agentziak izan dira, eta honelako arrazoiak ematen zizkieten ijítoei: “Jabeek ez diete ijíto

familiei alokatu nahi”, “Zuekin beti daude arazoak, ez duzelako ordaintzen, etxea hondatzen duzelako...”, eta abar. Horixe egiaztatu ahal izan dute alde batetik Agifugi elkarteak, Gipuzkoako zenbait herritako etxe-agentzia batzuetan, eta bestetik Nevipen elkarteak, Bilboko etxe-agentzietan. Kaltetuek, baina, ez dute nahi izan erreklamaziorik aurkeztu edo gertakariak salatu, eta aipatutako elkarte horiei jakinarazi besterik ez dute egin; izan ere, hein batean, susmoa zuten prozesua amaitzean ez zutela ez erantzun positiborik ez erabakigarriarik izango.

Halaber, CEAR-Euskadi elkarteak familia nigeriar baten kasua jaso zuen: Gasteizko etxe-agentzia batera jo zuten, eta modu arrazista eta xenofoboan tratatu zituzten. Hain zuzen ere, etxe-agentzeak “zuek eta mairuak” esanez hitz egiten zien, eta gehiegizko baldintzak eskatu zizkien etxebizitza alokatzeko; adibidez, gela bat ikusteko 10 euro ordaintzea. Txosten hau itxi den egunean, CEAR-Euskadik ez ditu amaitutzat eman etxe-agentziarekin lotutako kexa horiek kudeatzeko izapideak ■

Diskriminazioa zer arlotan gertatu den aztertuz gero, kasuen % 80 eremu pribatuan gertatu dira, eta % 20 eremu publikoan.



## AISIALDIKO LOKALAK

**Bilbon eta Gasteizen, aisialdiko lokal batzuek sarrera ukatu diete jatorri magrebtarreko pertsonen, "mairuak izateagatik".**

2018ko abenduan, Bilboko diskoteka bateko segurtasun pribatuko langile batek sarrera ukatu zion herritar marokoar bati, "mairua izateagatik". Herritar marokoarrak erreklamazio-orria eskatu zuen keza jasota uzteko, baina lokaleko segurtasun-langile hark berak uko egin zion emateari. Hori ikusirik, kaltetuak udaltzaingoari deitu zion, eta haiek ere uko egin zioten gertatutakoaren atestaturia jasotzeari. CEAR-Euskadik, Migratzaileen Nazioarteko Egunaren harira (abendua 18), iritzi-artikulu bat kaleratu zuen, non aisialdiko lokaletan sarrera ukatzeko eskubideari eta sarrera diskriminatzeko eskubiderik ezari buruz hausnartzen baitu, eta kasua judizializatuko du. ■

Gertatu ohi da sartzea debekatzeko eskubidea zertan datzan gaizki ulertzea eta horren babesean publikoari irekitako establezimenduetara sartzea debekatzeko; bada, eskubide hori modu arbitrarioan aplikatzea diskriminazio-tratu gisa sailkatzen du Arartekoak, besteak beste. Aspaldi, gainera, 6/2013 Gomendio Orokorra eman zuen, ekainaren 27koa, jendearentzat zabalik dauden establezimendu pribatuetan sarrera ukatzeko eskubidea baliatzeari eta diskriminazioa debekatzeari buruzko araudia eta erreklamazioak izapidetzean erabilitako zigor-prozedurari eta berme-sistemari buruzko araudia eta horren aplikazioa berrikusteari buruzkoa.

Alde horretatik, gogora ekarri behar da Gasteizko Herritarren Defendatzailearen 2017ko uztailaren 25eko Ebazpena, honako hau ondorioztatzen duena:

*"Hala, bada, Udaltzaingoari GOGORARAZTEN diogu edozein pertsonari haren ideologia, erlijio, sinesmen, etnia, arraza edo nazio, sexu, sexu-joera, familia-egoera, gaixotasun edo elbarritasunaren zioz lokal publiko batean sar dadin ukatzea, delitutzat har daitekeela berez, Zigor Kodeko 512. artikuluan xedaturikoaren arabera, zirkunstantzia larrigarriarik edo ordena publikoaren kontrako istilurik egon beharrik gabe.*

*Gure aburuz, halako gertakarietan polizia agertzea beharrezkoa da oso, behin aurrera eraman eta gero, inpunitate osoz uka daitezkeen asmo gaiztoko jokabideak direnez, frogaren bat izatea ezinbestekoa delako, salaketa bideratu ahal izateko. Bestela, bereizkeriaren*

*biktima hura jasatera behartzen da, delitua egozteko eman dezakeen elementu bakarra bere hitza edo adiskideak diren lekukoen hitza baita. Polizia agertzeak, **berez, bereizkeriazko jokabideak duen garrantzi penala erakutsiko du, bai eta Udalak halako gertakariak inola ere ez onartzeko duen asmoa ere.***


*Horregatik, **Udaltzainek halako jokabideak ikertzeko eta ATESTATUA egiteko betebeharra dute, bereizkeriarik ez pairatzeko eskubidea urratzen zaion edozein pertsonak hori salatzen duenean**”.*

2018ko apirilean, espainiar nazionalitateko neska bat Gasteizko diskoteka batera joan zen lagun saharar batekin. Neska espainiarrari ez zitzaion dirurik eskatu lokalera sartzeko; mutil sahararrari, ordea, 20 euro ordaindu behar zuela esan zioten. Bi neska-mutilek, espainiar nazionalitateko beste mutil batzuei sarrera ordaintzeko eskatzen ez zietela ikusita, kexa jarri zuten, lokaleko erreklamazio-orrien bidez lehenik eta Arartekoaren aurrean ondoren. Gerora, jakin dute gertaturikoa ez zela jokabide bakana izan, baizik eta horrela jokatu ohi dutela Magrebko ezaugarri fenotipikoak dituzten pertsonekin. CEAR-Euskadik kaltetuei berriro dei egin zien kasuarekin lotutako dokumentazioa biltzeko, baina kaltetuak ez ziren hitzordura agertu, eta ezin izan dira atzera haiekin harremanetan jarri. ■

### **Gasteizko taberna batek eta diskoteka batek emakume lesbianak diskriminatu ditu lokalean elkar musukatzeagatik.**


2018ko martxoan, tabernako zerbitzariak haxe esan zien lokal barruan elkar musukatzen ari ziren bi emakumeri: “Ospa tabernatik, gure bezeroek ez dute-eta horrelakorik ikusi nahi”. Aldarte elkarte harremanetan jarri zen tabernaren arduradunarekin, eta hark ezeztatu egin zituen gertakariak. Kaltetuek lehenbailehen ahaztu nahi zuten gertaturikoa, eta ez zuten ezer egin nahi izan.


2018ko uztailean, diskotekako segurtasun pribatuko langileak erdeinuz eta modu homofoboan hitz egin zien elkarri musuka ari ziren bi emakumeri. Emakumeek aurre egin zioten segurtasun-langileari, eta hark eraso egin zion haietako bati. Epaiketa egin zen, eta emakumeek, zeinak ordezkariitza juridikorik gabe joan baitziren, beren interesen kontrako epaia jaso zuten; are, erasotzaileari kalte-ordaina ematera behartu zituzten. Kasua hori gertatu ondoren iritsi zen Aldarte elkartera. ■



Esparru publikoan gertatutako bederatzi kasuetatik zazpik LGTBI kolektiboko kideei eragin diete, eta beste biek, berriz, migratzaileen begiradako kideei. Kasu horiek guztiak hurrengo grafikoan zehazten diren arloetan gertatu dira.

Esparru honetan nabarmentzekoak dira Erregistro Zibilar dagokion kasua eta Osakidetzako oposizioetako gai-zerrendari dagozkion bi kasuak, oso ondo konpondu baitira, gure ustez.





**2018ko maiatza. Identifikazio-agirietan izena eta sexua aldatzeari dagokionez arau aldetik egin diren aurrerapenak ez dira islatzen administrazioaren jardunean**

2018ko maiatzean, pertsona bat harremanetan jarri zen Gehitu elkartearekin, bere kasua azaltzeko: erregistro zibil batera jo zuen agirietan izena eta sexua alda ziezaiotela eskatzeko, baina erregistroko langileak adierazi zion eskaera egiteko beharrezkoa zuela mediku forentsearen txostena aurkeztea, nahiz eta arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera hori ez den nahitaezkoa. Gehitu elkarteak telefonoz deitu zuen erregistro zibil horretara, eta, kasu horietan aplikatu behar den araudia helarazi ostean, tramiterako onartu zuten kaltetuaren eskaera, mediku forentsearen txostenik gabe ■

**OPOSIZIOETARAKO GAI-ZERRENDATA MATERIALAK**

**Gehituk kexak aurkeztu ondoren, Osakidetza bere lan-eskaintza publikoaren gai-zerrenda berrikusi zuen, tratu-berdintasunaren printzipioa eta sexu- eta genero-identitateak edo -orientazioak eragindako diskriminaziorik ezaren printzipioa bermatzeko.**


2018an, bi kexa jaso dira Osakidetzaren lan-eskaintza publikoekin lotuta, eta nabarmendu egin nahi ditugu, oso larriak zirelako eta berehala ebatzi direlako, tartean zeuden alderdi guztien inplikazioari eta elkarlanari esker.


Kexetako lehena Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 111/2018 Ebazpenari buruzkoa zen. 2018ko otsailean, mediku psikiatra izateko oposizioak egin nahi zituzten zenbait pertsona harremanetan jarri ziren Gehitu elkartearekin, gai-zerrenda orokorrean "Paziente lesbiana, gay, bisexual eta transexualen tratamendua" izenburua zeraman atal bat agertzen zela eta; izan ere, haien ustetan, planteamendu horrek berekin zekarren LGTBI kolektiboko kideen sexu- eta genero-identitatea eta -orientazioa modu estereotipatu eta patologikoan tratatzea. Gehitu elkarteak kexa aurkeztu zuen Osakidetzaren PEAZ Pazientea eta Erabiltzailea Atenditzeko Zerbitzuan, eta, kudeaketa egokiak egin ondoren, Osakidetzak aldatu egin zuen ebazpenaren testua, eta berria argitaratu.

2018ko ekainean, emakume bat harremanetan jarri zen Gehiturekin, erizaintzako kategoriako bibliografian agertzen zen liburuetako batekin ados ez zegoela adierazteko; zehazki, "La salud mental y sus cuidados" (Osasun mentala eta haren zainketak) zen liburua, Javier Cabanyes eta Miguel Ángel Monjesena. Liburu horretan, besteak beste, honako hauek esaten dira: sexu-identitatearen nahasmendua prebenitzeari dagokionez, "gomendatzen da arreta handiagoa jartzea fisikoki itsusi samarrak diren neskatoen sexu-identitatearen garapenari"; helduarora iritsi eta behin eta berriro kirurgia bidezko sexu-aldaketa eskatzen duten pertsonen dagokienez, esaten da horrelako konponbideek arazo handiak ekartzen dituztela, "benetan ez delako posible pertsona baten sexua aldatzea"; "gezurra da homosexualitatea zerbait berezkoa eta konponezina dela. Faktore pertsonaletan eta ingurumenekoetan psikologikoki esku hartzea lagungarria izan daiteke libreki hala nahi duen pertsona batengan aldaketa hori sustatzeko"; "emakumeen ahulguneetako bat itxura fisikoaren gaineko kezka da. Gizonezkoak horri erreparatzen dio nagusiki, eta horregatik da hain garrantzitsua sexu femeninoarentzat"; edo "emakumeak bereziki sentikorra izan behar du, eta mendetasuna edo indarkeria ekar dezaketen zantzuei igartzen jakin. Horrez gain, jakitun izan behar du gorputzarekin igor ditzakeen eta bikotekideak jaso ditzakeen mezuek ondorio jakin batzuk dituzten erreakzioak sorraraz ditzaketela". Edukien larritasuna ikusita, Gehituk kexa aurkeztu zion Osakidetzaren PEAZi. Hala, sail eskudunak egiaztatu zuen salatutako edukiak ez zeudela lan-eskaintza publiko hartarako gai-zerrendan,

eta desegokiak zirela iritzi zion; horrenbestez, erabaki zuen testua ez dela erreferentzia bibliografiko gisa agertuko etorkizuneko hautaketa-prozesuetan. ■

Eremu pribatua sortutako egoerak honako kategoria hauetan bana daitezke:





Sareak aurten jasotako kasuetan, azpieroem pribatuetako bat ere ez da deigarria kopuruei dagokienez; dena dela, bide publikoa da kasu gehien erregistratu diren ingurunea, zazpi kasurekin. Begiraden arabera, kasuetako lau LGTBI kolektiboko kideek salatu dituzte, eraso fisikoei zein ahozkoiei aurre egin behar izan dietelako jendaurrean maitasun-zantzuak erakusteagatik, eta kasuetako hirutan, berriz, migratzaileek antzeko egoerak salatu dituzte, etniaren arrazoiz gertatutakoak.

Bide publikoaren eremuaren ondotik, saltokietan gertatzen diren diskriminazio-egoerak daude (sei kasu). Hemen, ikus daiteke diskriminazio-egoerak gertatu diren kasu guztietan biktimia –edo biktimen multzoa– ijitoen begiradari dagokiola. Hain zuzen, hainbat saltokitako segurtasun-langileek esetsi egin diete eta modu umiliagarri eta iraingarrian tratatu dituzte, ijitoak izateagatik haiek zerbait lapurtzea errazagoa dela sinetsita. Hori esplizituki adierazten dute saltoki horietako batzuetako saltzaileek.

**MERKATARITZAKO LOKALAK**

***Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait saltokitan disimulurik gabe begiratzeko eta jarraitzen zaie ijitoei, "lapurretan egiteko susmagarriak direlako".***

2018an, guztira 6 kexa jaso dira, baina egiatan bakar bat izan litezke; izan ere, gertakariak berdinak dira, denda edo supermerkatua Bilbon, Erandion, Irunen edo Donostian dagoen alde batera utzita. Kaltetuak desberdinak dira, baina denak ere ijitoak, eta, denda batera sartzen diren bakoitzean, segurtasun pribatuko langileek, saltzaileek edo saltokiaren arduradunek sistematikoki esesten eta jazartzen diete. Sarri, gainera, salgaiak lapurtzea leporatzen diete, baina, egiaz, produktuok ez dira apalategitik desagertzen.

Horixe gertatu zitzaion bikote ijito bati 2018ko abenduan: Bilboko kosmetiko-denda batera sartu ziren, eta, ezer erosi gabe irteten zirenean, poltsikoak husteko eskatu zieten. Bikote ijitoak uko egin zion horri, eta Ertzaintzari deituko ziola ohartarazi; hori ikusita, saltzaileak atzera egin zuen eta barkamena eskatu zien.

Antzeko zerbait gertatu zitzaion beste bikote ijito bati Erandioko supermerkatu batean, Bizkaian: establezimenduko segurtasun pribatuko langileak sistematikoki eta gertutik esetsi zien. Bikotea kexatu egin zen, eta segurtasun-zaintzaileak erantzun zien bere lana zela lapurreta- eta ebasketa-delituen susmagarriak zelatatzea. Jarraian, bikoteak zaintzaileari esan zion jazartzeari eta beldurra eragiteari uzten ez bazion Ertzaintzari deituko ziola, eta, horren ondoren, zaintzaileak horrela jokatzeari utzi zion.

Era berean, Donostiako merkataritza-gune batean, establezimendu bateko segurtasun pribatuko langileak denda osoan zehar esetsi eta jazarri zion bikote bati, harik eta bikoteak dendatik alde egitea erabaki zuen arte.

Bilboko beste supermerkatu batean, segurtasun-zaintzaileak establezimendu osoan zehar esetsi zion beste bikote ijito bati, eta, azkenean, berarekin joateko eta dendaren arduradunarekin hitz egiteko eskatu zien. Arduradunak honako hau bota zien: "beti jende berberak egiten du lapurretan". Bikoteak ez zuen ezer lapurtu, eta, azkenik, segurtasun-zaintzaileak eta arduradunak barkamena eskatu zien.

Irungo saltoki batean, erosketak establezimendu horretan egin ohi dituen emakume ijito bat kutxan uzten ari zen erositakoa, ordaintzeko, eta kutxazainak, antza denez, pixoihal-pakete bat ordaindu gabe joan zen beste pertsona batekin nahasi zuen. Orduan, kutxazaina oihuka hasi zitzaion emakume ijitoari, eta errieta egin zion pixoihalen tiketa ordain zezan ("ijitoa" hitza idatzia zuen tiket bat erakutsi zion). Emakumea ahalegindu zen ez zela bera izan azaltzen, baina ordaintzeko ilaran zegoen jendea ere errietan hasi zitzaion, "lotsagabea", "ordain ezazu", "beti berdin zabiltzate" eta halakoak esanez. Azkenean, emakumeak alde egin zuen supermerkatutik, eta biharamunean itzuli zen establezimenduaren arduradunarekin hitz egiteko, zeinak barkamena eskatu baitzion. Kutxazainak, ordea, ez zuen emakumearekin hitz egin nahi izan.

Bestalde, Irunen halaber, bost emakume ijito lurrin-denda batera sartu ziren, eta, automatikoki, saltzaileak segika hasi zitzaizkien. Gainera, komentarioak egiten zituzten ozenki, sartu berri ziren bost emakumeen ijito-izaera aipatuz. Halako batean, emakume ijitoetako batek ez zutela lapurretan egingo esan zien saltzaileei. Jarraian, liskarrean hasi ziren, eta saltzaileetako batek Ertzaintzari deitu zion. Segurtasun publikoko agenteak bertaratu zirenean, emakume ijitoek gertaturikoa salatu nahi izan zuten, baina agenteek esan zieten ez zegoela salatzeke ezer, saltzaileek sarrera ukatzeko eskubidea zeukatela eta lokaletik alde egin beharra zutela ■

Diskriminaziozko jokabide horiek eragina dute ijitoen eguneroko jardueretan, eta behin eta berriro gertatzen dira sistematikoki. Horren ondorioz, gaur egun ijito herriaren gainean dagoen ikuspegi estereotipatuak erabat onartzen duen arrazakeria soziala betikotzen da. Bestalde, kasuen berri duten elkarteek, hots, Nevipen, Kale Dor Kayiko eta Agifugik, zaila dute kasuok kudeatzea, kaltetuek mesfidantza handia baitute justizia-sisteman; gainera, agente diskriminatzaileek inpunitatez jokatu ohi dute, eta sarri ez dute zailtasunik izaten beren jokabidea justifikatzeko. Horregatik, nahiago dute gertatutakoa lehenbailehen ahaztu, hurrengo erosketara arte.

**Aisialdiko lokalei** dagokienez, bost kasu erregistratu dira: horietako hiru LGBTI begiradari dagozkio, eta horiek ere lokal barruan jendaurrean maitasuna erakustearekin lotuta daude; beste biak migratzaileen begiradari dagozkio, eta profil etnikoa dela-eta lokalera sartzea debekatzearekin lotuta daude.

Horrez gain, beste lau kasu erregistratu dira komunikazioaren eta Interneten arloan: kasuetako bik migratzaileen begiradan izan dute eragina, beste batek ijito herriarengan eta besteak LGBTI kolektiboarengan. Jarraian kasuetako bi azaltzen dira, eta horietako bat bereziki nabarmentzekoa da; FAPE Espainiako Kazetari Elkartearen Federazioak ebatzi zuen, eta Sareak oso ontzat jotzen du hori.

## KOMUNIKABIDEAK

**Rober Bodegasek “ijitoei buruzko txisterik ez egitea” izan zuen hizpide Comedy Centralen aurkeztutako bere monologoaren zati batean.**

2018ko abuztuan, berriro ere sareetan ibili zen Rober Bodegasen monologo bat, zeinetan jada ezin dela ijitoei buruzko txisterik egin adierazten baitzuen (bideoa urtebete lehenago grabatu zen), eta horrek haserrea piztu zuen ijito herriaren eskubide- eta aukera-berdintasunaren alde lan egiten duten ijito-elkarte askotan. Bideoan, umoristak honelako aipamenak egiten ditu: “haiek txisterik ez egiteko eskatu digute, eta gu eskaera betetzen ari gara. Guk gure arauen arabera bizitzeko eskatu diegu, eta haiek, ba, denbora beharko dute”. Hortik aurrera, monologoan behin eta berriro botatzen ditu ijito herriaren irudi estereotipatuarekin bat datozen eta orain arte jasandako diskriminazio historikoa betikotzen duten esaldiak (hau da, delituak egiten dituztela, drogarekin lotuta daudela eta abar). Azkenean, Rober Bodegasek barkamena eskatu zuen, eta bideoa Internetetik kendu. Eraberean Sarean ordezkatuta dauden ijito-elkarteei Sare osoaren babesa eman zieten estatuko edo EAEtik kanpoko ijito-elkarteei eta ijitoen aldeko elkarteei, zeinek ordurako hasiak baitzituzten egintza judizialak. ■

**Eduardo Velascok, Telebilbaok ematen duen Bilbosport kirol-saioaren aurkezleak, magrebtarrei buruzko gorroto-diskurtso bat egin zuen.**

2018ko abuztuko azken astean, Eduardo Velascok bere saioko kolaboratzaile bati eskatu zion konta zezala nola Santurtziko (Bizkaia) jaietan sakelako telefonoa lapurtu zioten, eta, besteak beste, adierazpen hauek egin zituzten: “eta betikoak izango ziren, ezta?”; “ba horixe, DSBEa eta Zornotzan duten zentro hori ordaintzen jarraitu beharko diegu, eta autobusa, Barik, metroa, hau da, bizimodua apur bat erraztu”; “baina ezin dugu kontu horiez hitz egin, bestela arrazista deitzen dizutelako”; “baina nik pentsatzen dudana esan ohi dudanez, ba hori, gauzak errazten jarraitu beharko diegu, magrebtarrek lasai asko lapurtu dezaten jai guztietan”; “lanera datorren jendea ongi etorria izan dadila, baina batzuk betikoa egitera etortzen dira, lapurtzera eta, deskuidatzen bazara, baita hiltzera ere”; “gogoa neukan haxe esateko”.

CEAR-Euskadik eta Gipuzkoako SOS Arrazakeriak kexa bana aurkeztu zieten Telebilbaori, FAPE Espainiako Kazetari Elkartearen Federazioari, Nerviñon komunikazio-taldeari eta Euskal Kazetariaren Elkarteari. FAPEk, kexa tramiterako onartu ostean, honako hau ebatzi zuen 2018ko abenduan: “2018ko abuztuaren 30ean, Eduardo Velasco aurkezleak saioaren testuingurutik kanpo zeuden iritzi pertsonalak emanez hasi zuen Bilbosport kirol-tertulia, nahita, eta akusazio larriak egin zituen EAEn bizi diren magrebtarrei buruz eta Eusko Jaurlaritzaren gizarte-laguntzen emaitzei buruz. ***Iritzi horiek testuingurutik kanpo daude eta iraingarriak dira, zitalak direlako eta errugabetasun-presuntzioa betetzen ez dutelako, jokabide xenofoboak bultzatzen ditzakeen orokortze batean oinarritzen baitira. Horrenbestez, batzorde honen ustez, Eduardo Velascok urratu egin du FAPERen Deontologia Kodea, zehazki 5. eta 7. jarduteko printzipioak, eskubide indibidualei, diskriminazioari eta errugabetasun-presuntzioari buruzkoak***”.

Horrez gain, beste lau kasu erregistratu dira etxebizitza eskuratzeko prozesuan izaten den diskriminazioarekin lotuta, eta beste lau lanaren arloarekin lotuta. Zehazki, hiru kasu ditugu etxebizitza baten alokairua ukatu dieten ijito familiena, eta LGTBI kolektiboko beste bi pertsonak, berriz, salatu dute lantokian giro txarra sortu dietela: kasu batean homosexuala dela jakinarazi dute, eta beste batean transexuala dela, lanpostua utzi dezaten.

**ENPLEGUA****Sexu- eta genero-orientazioa edo -identitatea zabaltzea, laneko jazarpen-neurri gisa.**

2018an, Eraberean Sareak bi kasu jaso ditu non LGBTI kolektiboko kideek diskriminazioa jasan baitute lanean, haien sexu- edo genero-orientazioa eta -identitatea presioa, hertsapena eta jazarpena egiteko neurri gisa erabili direlako.

Horixe gertatu zitzaion emakume bati Donostian: 2018ko abenduan Gehiturekin harremanetan jarri zen, eta salatu zuen lankide batek lantokiko aparkalekuan bikotekidearekin ikusi zuenetik enpresa osoari lesbiana dela zabaldu ziola eta erdeinuz hitz egiten ziola arrazoi horregatik. Emakume kaltetuak ez zuen nahi lantokian bere bizitza pribatuaz hitz egiterik, ezta lesbiana dela jakitera ematerik ere. Txosten hau itxi den egunean, Gehitu elkarteak zain dago kaltetuarekin hitzordua egin ahal izateko eta harekin batera estrategia bat diseinatzeko; izan ere, arrazoi pertsonalak zirela eta, kaltetuak bertan behera utzi ditu adostutako hitzorduak.

2011ko azaroan, emakume bat Aldarte elkartearen Gasteizko egoitzarekin harremanetan jarri zen, eta salatu zuen berak lan egiten duen enpresaren arduradunek jakinarazi zietenela langileak gutxitu behar zituztela baina ezin zituztela kaleratzearen gastuak ordaindu; bada, emakumeak bere lan-eskubideei eutsi zien, eta arduradunek enpresa osoari eta bere borondatearen kontra zabaldu zuten emakume transexuala dela. Horren ondorioz, lankideetako askok ihes egiten diote eta desberdin tratatzen dute. Kaltetuak bazeukan kasua salatzeke ordezkaritza juridikoa, eta Aldarte elkarteak kasuaren jarraipena egiten ari da. ■

Azkenik, bada Sareko antenek artatutako diskriminazio-kasuak kuantitatiboki aztertzean kontuan izan den beste aldagai bat: urratutako eskubideak.

Sarea martxan egon den urte hauetan guztietan askotariko gogoetak eta iritziak izan dira auzi honi nola heldu adosteko orduan, eta ez da erraza izan irtenbidea ematea.


Izan ere, kasu batzuetan ez da ebazpen judizialik eman, eta beste batzuetan, berriz, ez zegoen froga bat ere edo nahikorik diskriminazio-egintza zuzenean eskubide urratu jakin bati lotzen zionik, pertsonen berdintasunetik eta duintasunetik harago.

Zenbait kasutan zigortu egin da Zigor Kodearen 24.4 artikuluan jasotzen diren astungarrien modalitateetako bati lotuta zegoen diskriminazio-egintza, eta kasutan ez da zailtasunik izan; ordea, zigorrak jaso ez duten diskriminazio-gertakarietan, batzuetan zailagoa da zein eskubide urratu den zehaztea.

Barrutik hausnartu ostean, eta kontuan hartuta diskriminazio orok funtsean urratzen duela berdintasunerako eta giza duintasunerako eskubidea, Eraberean Sareak erabaki du bi eskubide horiek urratzen direla diskriminazio-egintzatzat jotzeko nahikoa froga dauden egoeretan.

Inguruabar hori ez da horrela jaso aurreko urteetako txostenetan, nahiz eta aintzat hartu den Sarearen barneko lan-prozesuetan.

2018an aztertutako kasuen artetik, azpimarratu behar dugu berdintasunarekin eta giza duintasunarekin lotutako eskubideak urratzen direla batez ere, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan.



Alde horretatik, gogora ekarri behar da berdintasunaren funtsezko printzipioa onartuta dagoela 1978ko Espainiako Konstituzioan, eta zehazki I. tituluan (Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak), bigarren kapituluan (Eskubideak eta askatasunak).

14. artikulua. Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozial aintzat hartuta.

Gizaki guztiak berdintzat hartzen ditu, eta, beraz, diskriminazio orok eskubide hori urratuko luke.

Berdin gertatzen da giza duintasunerako eskubidearekin, hura ere Espainiako Konstituzioan eta Espainiari dagozkion nazioarteko gainerako arauetan onartua.

1978ko Espainiako Konstituzioak haxe dio oinarritzko eskubide eta eginbeharrei buruzko I. tituluan, 10. artikuluan:

1. Ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri dira pertsonaren duintasuna, hari datxekion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerakoen eskubideei zor zaien begirunea.
2. Konstituzioak aitortzen dituen oinarritzko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak interpretatzeko, kontuan hartuko da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, bai eta gai berberen inguruan Espainiak berretsi dituen nazioarteko tratatuak eta itunak ere.

Diskriminazio-egintzek zuzenean erasotzen diote pertsonen duintasunari eta haien nortasunaren garapen askeari. Ildo horretatik, Eraberean Sareak uste du hori horrela jaso behar dela diskriminaziozkotzat jotzen dituzten egoerak, kasuak, auziak edo gertakariak jakinarazi dizkigutela baloratzeko nahikoa elementu daudenean.

Pertsona orok du duintasunerako eskubidea, eta gizaki indibidual eta sozial gisa baloratu behar da, egoera berean, pertsona izate hutsagatik dituen ezaugarri eta bereizgarriak aintzat hartuta. Horrenbestez, diskriminazio-egintza bat dagoela frogatzeko nahikoa zantzu daudela uste den 46 kasuen artetik, 44k oinarritzko berdintasun-printzipioa urratzen dute, eta 43k, berriz, duintasunarena.

Diskriminazio-egintzetan, normalean, eskubide horiez gain beste batzuk ere urratu ohi dira; batzuetan, ordea, juridikoki, berdintasunari eta duintasunari erasotzen zaie batik bat, intolerantzia-zantzu eta gorroto-jokabide agerikoenak ikusten ditugunean.

Alde horretatik, eskubide horiek dituzten babes-neurri bereziak aipatu behar ditugu, bereziki garrantzitsuak direlako:

Berdintasunerako eskubidea urratzeak, Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan jasotzen den moduan, berekin dakar giza eskubideen nazioarteko hainbat bitartekotan jasota dagoen

berdintasunerako eskubidea urratzea, eta bitarteko horiek zuzenean aplikatu behar dira Espainiako auzitegien aurrean; beraz, barneko babes-bideak amaitzen bazaizkigu eta askietsita gelditu ez bagara, nazioarteko babes-instantzietara jo dezakegu, Espainia haien parte den heinean.


Horrez gain, babes-neurri horiek garrantzitsuak dira, Espainiako Konstituzioak berak babes-neurri jakin batzuk ezartzen dituelako legearen arabera berdintasunari buruzko 14. artikuluen edukia jasotzean. Hala, herritarrek legearen arabera berdintasunerako eskubidea babesteko eska dezakete auzitegi arrunten aurrean, lehentasun- eta sumariotasun-printzipioetan oinarritutako prozedura baten bitartez (Espainiako Konstituzioaren 53.2 art.).

Halaber, bidezkoa denean, babes-errekurtsoa jarri ahal izango dute Konstituzio Auzitegian (Espainiako Konstituzioaren 53.2 art. eta 161.1.b art.), eta konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa jarri ahal izango dute legearen arabera berdintasunerako eskubidea urratzen duten legeen eta lege-indarra duten xedapen arauemaileen aurka (Espainiako Konstituzioaren 53.1 eta 161.1.a artikulak).

Era berean, herritarrek Arartekoarengana eta autonomia-erkidegoetako antzeko figurengana jo ahal izango dute, haiek defendatzen baitituzte Konstituzioaren I. tituluan jasotzen diren eskubideak, tartean berdintasunerako eskubidea.

Zuzeneko babeserako neurri horiez gain, aipatzekoa da eskubide horren funtsezko edukia errespetatu egin beharko dela eta lege bidez bakarrik arautu ahal izango dela haren egikaritza (Espainiako Konstituzioaren 53.1 art.); horrenbestez, ezin da eman legearen arabera berdintasunerako eskubideari kalte egiten dioten lege-dekreturik, nahiz eta horretarako aparteko eta presazko beharra egon (Espainiako Konstituzioaren 86.1 art.).

Jarrai dezagun urraturiko eskubideak zehatzago aztertzen.



Berdintasunerako eta duintasunerako eskubideen ondotik, osotasun fisikoaren eskubidea urratu da sarrien, guztira hamar aldiz. Hamar kasu horietatik hiru migratzaileen begiradako pertsonen aurkakoak izan dira, eta zazpi, berriz, LGBTI kolektiboko kideen aurkakoak. Datu hori nabarmendu nahi dugu; izan ere, aurreko urteetan egiaztatu dugun bezalaxe, LGBTI pertsonen kontrako indarkeria eraso fisikoaren bitartez azaleratzen da oso maiz.

### Donostia, 2018ko martxoa. Emakume bati eraso egin diote kale erdian, transexuala izateagatik.

Martxoaren 16ko 12:00 aldera, E. senarrarekin zihoan Donostiako Bertsolari kaletik, eta N. eta I.-rekin gurutzatu ziren; bistaz ezagutzen zituzten, aurretik liskarren bat izana baitzuten elkarrekin. Gurutzatzera zihoazela, N. oldartu egin zitzaion E.-ri, eta masaileko bat eman eta iletik eutsi zion, lurrera botatzeko. Orduan, N.-ren senarra ere (I.) erasoka hasi zen, eta ukabilkadak eta ostikoak eman zizkion E.-ri. Horrez gain, N. eta I.-k E. iraindu eta mehatxatu zuten, besteak beste esaldi hauekin: “putakumea”, “gizonezkoa zara, ez zenuke zure senarrarekin ezkondata egon behar, gizonezkoa zarelako”, “aiztoa sartuko dizut hankartetik”, “akabatu egingo zaitut”. Hasieran, E.-k Gehitu elkartera jo zuen, eta, kasua aztertu ondoren, Gipuzkoako SOS Arrazakeriak bere gain hartu zuen haren ordezkaritza juridikoa. Txosten hau itxi den egunean, kasua epaiketa-eguna noiz jarriko dago ■

Urratutako beste eskubideetako bat **etxebizitza** eskuratzeko eskubidea da, zeina guztira sei bider urratu baita; sei kasu horietatik bost ijito familien kontrakoak dira, txosten honetan aurretik ere azaldu den moduan. Halaber, sei alditan ikusi dira intimitaterako eskubidea urratu izanaren ebidentziak (eskubide hori pertsonen eremu isilpekoenarekin lotuta dago); hiru kasu LGTBI kolektiboaren kontrakoak izan dira, eta beste hirurak migratzaileen kontrakoak.

Urratu diren gainerako eskubideak hezkuntzarena, lanarena, osasunarena eta kulturaskatasunarena izan dira.

### Gesaltza Añana, 2018ko uztaila. Nerabe talde batek igerileku publikoetan kamiseta eta guzti bainatzea erabaki du, beren adiskide transgeneroari elkartasuna adierazteko.

2018ko uztailaren 13an, Gesaltza Añanako udal-igerilekuetako sorosleak kalera bota zituen Arabako Aldundiaren babespeko musika-udaleku batzuetan zebiltzan 60 nerabe. Hasteko, sorosleak ez zion kamisetarekin bainatzen utzi nerabe taldeko pertsona transgenero bati. Soroslearen jarrera ikusita, begirale ziharduten helduak eta taldeko nerabeak sorosleari egoera azaltzen saiatu ziren, baina sorosleak ezezkoari eutsi

zion. Orduan, nerabeek kamiseta jantzi eta kamisetarekin bainatzea erabaki zuten, adiskideari babesa eta elkartasuna erakusteko. Azkenean, sorosleak Ertzaintzari deitu zion. Aldarte elkarteak, gertatutakoaren berri izan ondoren, harremanetan jarri zen kasu honen ardura zuen berdintasun-teknikariarekin, eta sexu- eta genero-aniztasunari buruzko hiru prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera egin dira gertakari horiek izan ziren eremuko zenbait herritan. ■

## BEREZIKI NABARMENTZEKO KASUAK

Antenek 2018an diskriminazio-kasuak detektatzeko eta aztertzeke egin dituzten jardueri buruzko kapitulu hau amaitzeko, nabarmentzekoak dira auzitan jardute estrategikotzat jotzen diren kasuak, bereziki aintzat hartu beharrekoak direlako, baita prozesu judizial baten ondorioz eratorritako kasuak ere.

Auzitan jardute estrategikotzat jotzen diren kasuak garrantzi juridiko berezia duten prozesuak eta gaiak dira, alarma soziala pizten dutenak, eta helburu dute sentsibilizazio, prestakuntza eta posizionamendu politikorako irizpide teknikoak eta irizpide juridikoak (jurisprudentzia) sortzea eta politika publikoak ezagutaraztea.

Sarearen asmoa da batik bat pedagogikoak diren prozesuak eta elkarren arteko ikaskuntzako prozesuak sustatzea.

Auzitan jardute estrategikoak jurisdikzio guztiak barne hartzen ditu.

Estrategiko gisa sailkatzeko jarraitu diren irizpideak Sarearen funtzionamendu-erregelamenduan ezarritakoak dira; bertan, hain zuzen, hainbat ikuspuntutan oinarrituta kasuak estrategikoak diren ala ez ebazteko elementu batzuk zehazten dira.

Guztira 10 kasu jotzen dira auzitan jardute estrategikotzat, eta honako arlo edo esparru hauekin lotuta daude:

- Etxebizitza arloko diskriminazioa eta iruzurra
- Zerbitzuak erabiltzea eta polizia-atestatua jasotzea ukatzea
- Eraso fisikoa, hutsegitezko diskriminazioan oinarrituta
- Askotariko diskriminazioa
- Irainak eta mehatxuak, diskriminazio homofobikoak eraginda

- Eraso bide publikoan, diskriminazio homofobikoak eraginda
- Eraso bide publikoan, arraza- edo etnia-jatorriak eraginda Zigor Kodeko 22.4 artikuluan aipatzen den astungarria aplikatuz amaitu zen kasua.
- Diskriminaziozko edo gorrotoa pizteko komentarioak hedabideetan. FAPE Espainiako Kazetari Elkarteen Federazioaren aldeko ebazpenarekin amaitu zen kasua.

Bestalde, prozesu judizialak ekarri dituzten kasuak 8 dira denera (horietako batzuk estrategiko gisa jo direnen artean daude).

2018an bide judizialera eraman ziren kasu horietatik 5 oraindik ebazpena jaso zain daude, eta gainerako 3ek amaiera ematen dieten ebazpen judizialak dituzte.

Horiez gain, Eraberean Sarean aurreko urteetan (2016an eta 2017an) erregistratu eta prozesu judizialera bideratu ziren kasuetatik, 8 kasu bukatu dira 2018an.

Prozesu judizial horien guztien ondorioz, 5 epai kondenatzaile egon dira.

Epai kondenatzaileei dagokienez, aipatzekoa da migratzaile bati egin zizkioten irain eta eraso fisikoekin lotutako kasu bat, zeinetan Zigor Kodearen 22.4 artikuluko arrazakeriagatiko astungarria aplika zedila eskatu baitzen eta ebazpen kondenatzailea lortu baitzen, adierazitako astungarri hori aplikatuta.

Halaber, azpimarratzekoa da kasu batean kondena xenofobia delitu batengatik izan dela, Zigor-Kodearen 510.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.



**Donostia, 2018ko martxoa. Nigeriar bati eraso arrazista egin diote bide publikoan.**

2018ko martxoaren 7ko 23:50 aldera, S.A. herritarra Donostiako Askatasunaren Hiribideko autobus-geltokirantz zihoan, eta bi pertsona oihuka hasi zitzaizkion: "beltza!", "zoaz zeure herrira", "beltz errea". Jarraian, buruan jo zuten zeramatzaten motorreko kaskoekin, eta, S.A. Lurrera erori ostean ere, kaskoekin jipoitzen jarraitu zuten. Horren ondorioz, S.A.-k lesio larriak izan zituen. 2018ko uztailaren 8an ikustaldia egin zen, eta, horren ondotik, Fiskaltzak akusatuak zigortzeko eskatu zuen Zigor Kodearen 147.2 artikuluan jasota dagoen lesio-delituagatik; akusazio partikularrak, hau da, Gipuzkoako SOS Arrazakeriak, eskatu zuen Zigor Kodearen 147.2 artikulua aplikatu zedila kode horretako bertako 22.4 artikuluan adierazten den inguruabar astungarriarekin, delitua arrazoi arrazistengatik egin zelako. 2018ko uztailaren 17ko epaian, delitua arrazoi arrazisten ondorioz egin izanaren inguruabar astungarria aplikatu zen (Zigor Kodearen 22.4 art.), Gipuzkoako SOS Arrazakeriak eskatu bezala ■